

**ZERBITZUAK, PROZEDURA IREKI – IREKI-SINPLIFIKATU – IREKI SUPER
SINPLIFIKATU BIDEZ, KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA
PARTIKULARREN AGIRIA. EUOPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION
SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN
FINANTZATUA, ZEHAZKI, 5. OSAGAIAREN (ITSASERTZA ETA UR-BALIABIDEAK
ZAINTEA) ESPARRUAN, <3> INBERTSIOA, «TRANSTZIO DIGITALA URAREN
ARLOAN» DEITUA.**

AURKIBIDEA

CAPÍTULO I.- DISPOSICIONES GENERALES	4
1. OBJETO Y FINALIDAD DEL CONTRATO.....	4
2. VALOR ESTIMADO, PRESUPUESTO DEL CONTRATO Y REVISIÓN DE PRECIOS..	4
3. PLAZO DE DURACIÓN Y LUGAR DE EJECUCIÓN DEL CONTRATO.	5
4. ÓRGANO COMPETENTE.....	6
5. NATURALEZA JURÍDICA DEL CONTRATO.	6
6. RÉGIMEN JURÍDICO APLICABLE.....	6
7. JURISDICCIÓN COMPETENTE.	7
8. PERFIL DEL CONTRATANTE.....	8
9. SUBCONTRATACIÓN	8
10. CESIÓN DEL CONTRATO.....	9
CAPÍTULO II: DISPOSICIONES RELATIVAS AL PROCEDIMIENTO DE LICITACIÓN, GARANTÍAS, ADJUDICACIÓN Y FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.....	9
A) CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR.....	9
11. CAPACIDAD Y SOLVENCIA PARA CONTRATAR. HABILITACIÓN PROFESIONAL. 9	
12. GARANTÍA PROVISIONAL.....	10
B) ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO.....	10
13. PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES. ASPECTOS GENERALES. LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN.	10
14. ACLARACIONES.....	11
15. FORMA DE PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES.	11
A) CONTENIDO COMUN DE LOS SOBRES EN TODOS LOS TIPOS DE PROCEDIMIENTOS (ABIERTO, ABIERTO SIMPLIFICADO Y ABIERTO SÚPER SIMPLIFICADO):	11
A1) SOBRE QUE CONTENGA LA DECLARACIÓN RESPONSABLE:	12
A2) SOBRE EN EL QUE DEBA INCORPORARSE LA DOCUMENTACIÓN RELATIVA A LOS CRITERIOS SOMETIDOS A JUICIO DE VALOR (CRITERIOS CUALITATIVOS):	13
A3) SOBRE EN EL QUE DEBA INCORPORARSE LA DOCUMENTACION RELATIVA A CRITERIOS CUANTIFICABLES DE FORMA AUTOMÁTICA.....	13
B) CONTENIDO ESPECÍFICO EN CADA TIPO DE PROCEDIMIENTO. Además de la documentación señalada en el apartado anterior deberá presentarse la siguiente: 14	
B1) PRESENTACIÓN EN EL PROCEDIMIENTO ABIERTO SUJETO A REGULACIÓN ARMONIZADA Y NO ARMONIZADA	14
B2) PRESENTACIÓN EN EL PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO (ART. 159.1 LCSP).....	15
B3) PRESENTACIÓN EN EL PROCEDIMIENTO ABIERTO SÚPER SIMPLIFICADO (ART. 159.6 LCSP).....	16
16. CONFIDENCIALIDAD.....	17
17. CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN.	17
18. MESA DE CONTRATACIÓN/COMITÉ DE EXPERTOS.	17
19. APERTURA DE PROPOSICIONES Y PROPUESTA DE ADJUDICACIÓN.....	17
20. FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.	20
CAPÍTULO III: DISPOSICIONES ESPECÍFICAS DEL CONTRATO DE SERVICIOS	21

21.	OBLIGACIONES ESPECÍFICAS DEL CONTRATO DE SERVICIOS. -	21
22.	MODIFICACIÓN DEL CONTRATO. -	23
23.	GARANTÍA Y RECEPCIÓN DEL OBJETO DEL CONTRATO. -	23
24.	CUMPLIMIENTO DE LOS PLAZOS.	24
25.	PENALIDADES.....	24
26.	CAUSAS DE RESOLUCIÓN. -	27
CAPÍTULO IV: DISPOSICIONES FINALES		27
27.	FORMA DE PAGO.....	27
28.	CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN.....	29
29.	OBLIGACIONES LABORES, SOCIALES, PARA LA IGUALDAD EFECTIVA ENTRE MUJERES Y HOMBRES Y DE PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE.	29
30.	PROPIEDAD DE LOS TRABAJOS REALIZADOS	39
ANEXO I. MODELO DE PROPOSICIÓN.....		40
ANEXO II. MODELO DE DECLARACIÓN DE EMPRESAS VINCULADAS.....		41
ANEXO III. REQUISITOS MEDIOAMBIENTALES DEL CONSORCIO DE AGUAS BILBAO BIZKAIA.....		42
ANEXO IV. MODELO DE DECLARACIÓN RESPONSABLE PARA PERSONAS JURIDICAS.....		47
ANEXO V. MODELO DE DECLARACION RESPONSABLE PARA PERSONAS FÍSICAS:		49
ANEXO VI. MODELO DE DESIGNACION COMO CONFIDENCIAL DE INFORMACIONES FACILITADAS POR LA EMPRESA		50
ANEXO VII. SUBCONTRATACIÓN.....		51
ANEXO VIII. SUBROGACIÓN DE PERSONAL		52
ANEXO IX. DECLARACIÓN DE AUSENCIA DE CONFLICTO DE INTERESES (DACI)		53
ANEXO X. DECLARACIÓN DE COMPROMISO EN RELACIÓN CON LA EJECUCIÓN DE ACTUACIONES DEL PRTR		56
ANEXO XI. MODELO DE DECLARACIÓN DE CESIÓN Y TRATAMIENTO DE DATOS EN RELACIÓN CON LA EJECUCIÓN DE ACTUACIONES DEL PLAN DE RECUPERACIÓN, TRANSFORMACIÓN Y RESILIENCIA (PRTR)		59

**ZERBITZUAK, PROZEDURA IREKI – IREKI-SINPLIFIKATU – IREKI SUPER
SINPLIFIKATU BIDEZ, KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO-KLAUSULA
PARTIKULARREN AGIRIA. EUROPAR BATASUNAREN NEXT GENERATION
SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSEKIN
FINANTZATUA, ZEHAZKI, 5. OSAGAIAREN (ITSASERTZA ETA UR-BALIABIDEAK
ZAIINTZEA) ESPARRUAN, <3> INBERTSIOA, «TRANSIZIO DIGITALA URAREN
ARLOAN» DEITUA.**

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. KONTRATUAREN XEDEA ETA HELBURUA.

Honako hau da kondizio-agiri honen xedea: Kontratuaren ezaugarrien taulako B.1) apartatuan aipatzen diren zerbitzuak kontratatze alderdi juridiko, administratibo eta ekonomikoetan gailendu behar diren eskubideak eta betebeharrak zehazteko itunak eta kondizioak ezartzea.

Hori guztia, B.2) apartatuan adierazitako premiak asebetetzeko.

Ezaugarrien Taularen B.4) apartatuan, CPV kodea jasotzen da.

Kontratua loteetan zatituta badago, lizitatzailleek lote bat, lote batzuk edo lote guztiak eskatzeko aukera izango dute, eta lote bat, batzuk edo guztiak adjudikatu ahalko zaizkie, lizitatzaille bakoitzeko gehieneko lote kopururik ezarri bada salbu parte-hartzearen eta/edo adjudikazioaren ondorenetarako; hala, Ezaugarrien Taularen B.3) apartatuan xedatutakoari helduko zaio.

Aldaerei dagokienez, Ezaugarrien Taularen B.5) apartatuan ezarritakoa gailenduko da.

Kontratu hau finantzatuta dago Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planetik datozen funtsekin, zeina Europar Batasunak finantzatuta dagoen (Next Generation EU funtsak), kondizio-agiri honetan, preskripzio teknikoan agirian eta kontratazio-espedientearen osatzen duten gainerako agirietan azaldu bezala.

2. BALIO ZENBATETZIA, AURREKONTUA ETA PREZIOEN BERRIKUSKETA.

- Kontratuaren balio zenbatetsia.

Kontratu honen balio zenbatetsia Ezaugarrien Taularen C.2) apartatuan adierazitakoa da.

Kontratu baten balio zenbatetsia kalkulatzeko, guztizko zenbatekoa hartzen da kontuan, balio erantsiaren gaineko zerga (BEZa) sartu gabe. Kalkulua egiteko, kontuan hartuko dira zenbatetsitako guztizko zenbatekoa, barne hartuta izan litezkeen era guztietako aukerak eta kontratuaren luzapenak, kontratuaren aldaketen zenbatekoa (lizitazio-aurrekontuaren zenbatekoaren gainean kalkulatuta) eta, hala badagokio, izangai edo lizitatzailleentzako primak edo ordainketak, baita, hala badagokio, azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikuluan zehaztutako gainerako alderdiak [lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora].

- Lizitazio-aurrekontua.

Kontratazioaren gehieneko gastuaren aurrekontua, eta lizitazioaren oinarri balio behar duena, kontratuaren hasierako indarraldirako aurreikusitakoa (BEZik gabe), ezaugarrien taulako C.1) apartatuan ezarritakoa da.

Bai adierazitako aurrekontuan, bai lizitatzailleek egindako eskaintzetan, barne hartutakotzat joko dira balorazio-faktore guztiak, adjudikaziodunak prestazio kontratua behar bezala betetzeko egin beharreko gastuak, bai eta era guztietako tributuak ere, indarrean dauden xedapenen arabera aplikatu beharrekoak, BEZa alde batera utzita.

Baztertu egingo dira aurrekontu hori gainditzen duten proposamenak.

Behar den aurrekontu-kreditua dago ezaugarrien taulako C.4) apartatuan zehaztutako zenbatekoan eta aurrekontu-partidetan.

Ezaugarrien taularen arabera espedientea aurrez izapidetzen bada, kontratua adjudikatzeko kondizioa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kontura. Halaber, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak aurrekontuetan urtero zenbateko nahikoak kontsignatu beharko ditu aurrekontuetan kontratazioak eskatzen dituen gastuei erantzuteko, beste ekitaldi batzuetara zabalduz gero.

Zerbitzuak urte batean baino gehiagoan exekutatzuz gero, kontratuko ezaugarrien taulako C.4) apartatuan jasotzen da etorkizunean kreditua egongo dela.

Kanpoko finantzaketarik badago, ezaugarrien taulako C.6) apartatuan jasoko da haren berri.

- Prezioak berraztertzea.

Ezaugarrien taulako C.5) apartatuan horrela ezarriz gero, prezioak berraztertuko dira. Hala denean, apartatu horretan dagoen indizea edo formula erabiliko da, guztia SPKLaren 103.etik 105.era arteko artikuluekin bat etorritz.

3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA KONTRATUA EXEKUTATZEKO TOKIA.

- Kontratuaren iraupena.

Kontratuaren iraupena, baita ezar litezkeen epe partzialak barne hartuta ere, ezaugarrien taulako D) apartatuan ezarritakoa izango da (edo adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzaren araberrako kontratu-adjudikaziotik ateratakoa). D) apartatuan eperik ageri ez bada, zenbatzen hasiko da kontratua formalizatu eta hurrengo egunetik aurrera edo, prozedura ireki super sinplifikatuaren kasuan, adjudikazioaren jakinarazpena onartu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hala ere, kontratuaren arduradunak hasteko data zehatza adierazteko aukera izango du, eta espedientean jasoko da horren berri.

Kontratistaren berandutzea erabakitzeko ez da aurrez ohartarazi beharrik egongo.

- Kontratuaren luzapena.

a) Kontratuaren karatulan horrela ezartzen denean, luzatzeko aukera egongo da bertan ezarritakoari jarraikiz. Kontratazio-organoak kontratua luzatzea erabaki ahalko du, eta nahitaezkoa izango da kontratistarentzat, betiere aurreabisua ematen badio kontratua amaitu baino bi (2) hilabete lehenago, gutxienez.

Kontratazio-organoak erabakiko du luzapena, prozedura honi jarraikiz:

- Kontratistari aurrez jakinaraztea.



- Kontratua sustatzen duen zuzendariordetzaren txostena, luzatzeko beharra justifikatzen duten interes publikoko arrazoiak zehaztuta.
- Legezketasun-txostena.
- Kontu-hartzailetzaren txostena.
- Kontratazio-organoaren erabakia.

b) Hala ere, SPKLaren 29.4 artikulua arabera, kontratu baten epemugara iristean kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatuko duen kontratu berria oraindik formalizatu ez baldin bada, adjudikazio-prozeduran gertatutako motiboren bategatik –eta ondorio horiek ekarri dituzten gertaerak kontratazio-organoarentzat aurreikusi ezinezkoak diren kasuan–, eta interes publikoko arrazoiak baldin badaude prestazioa ez eteteko, hasierako kontratua luzatu ahal izango da, harik eta kontratu berria exekutatzen hasi arte, edonola ere, gehienera bederatzi hilabeteko aldi batez, kontratuko gainerako baldintzak aldatu gabe, betiere kontratu berriaren lizitazioa hasierako kontratuaren amaiera-data baino gutxienez hiru hilabete lehenago argitaratu baldin bada.

- Kontratua exekutatzekeo lekua.
- Kontratua ezaugarrien taulako D.5) apartatuan adierazten den lekuan gauzatuko da.

4. ORGANO ESKUDUNA.

Kontratazio-organoa, zeinak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren izenean jarduten duen, ezaugarrien taulako A.2) apartatuan zehaztutakoa da.

5. KONTRATUAREN IZAERA JURIDIKOA.

Kontratuak zerbitzuen kontratuko tipifikazioa du, eta ezaugarrien taulako b.6) apartatuan zehaztutako izaera juridikoa du.

6. APLIKATU BEHARREKO ARAUBIDE JURIDIKOA.

Kondizio-agiri honek aginduko du kontratuan, eta kontratuaren legea da, loteslea bi alderdientzat; harekin batera, preskripzio tekniko partikularren agiriak aginduko du (aurrerantzean, PTA), eta haietan ezarrita ez dagoenari dagokionez, SPKL a eta gainerako araudi aplikagarria aplikatuko dira.

Kondizio-agiri honek, PTAk eta dena delako kontratuaren ezaugarrien taulak, haien eranskinak eta gainerako dokumentu erantsiek kontratu-izaera edukiko dute.

Plegu honen eta gainerako kontratu-agirien artean zerbait bat ez badator, plegu hau gailenduko da. Kontratu-izaera edukiko du, era berean, kontratua adjudikatzen zaion eskaintza teknikoa eta ekonomikoa, eta hala badagokio, kontratua formalizatzeko dokumentua.

Kontratuaren klausulak, edozein terminotan, edota kontratuko bestelako dokumentuak, jarraibideak edo hitzartutakoa exekutatzean aplikatzekoak diren araudiak ez ezagutzeak ez du adjudikazioduna salbuetsiko haiek betetzetik.

Baldin eta ezaugarrien tailaren C.6) apartatuan xedatutakoari jarraikiz kontratua Europako funtsekin finantzatzen bada, Tratutuko xedapenen eta haren indarrez finkatutako egiteen pean jartzeaz gainera, Europar Batasuneko jarduera, politika eta lehentasunekin koherentea izan beharko da, eta garapen jasangarriaren eta ingurumenaren hobekuntzaren alde eginez, hazkundea, lehiakortasuna, enplegua eta gizarte-inklusioa ez ezik, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatu beharko ditu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 (EB) Erregelamenduan xedatuarekin bat etorriz, aipatu Erregelamenduak ezartzen baititu Eskualde Garapeneko Europako Funtzari, Europako Gizarte Funtzari, Kohesio Funtzari, Landa Garapeneko Europako Nekazaritza Funtzari eta Itsasoaren eta

Arrantzaren Europako Funtsari buruzko xedapen erkideak eta Eskualde Garapeneke Europako Funtsari, Europako Gizarte Funtsari, Kohesio Funtsari eta Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsari buruzko xedapen orokorrak, eta Kontseiluaren 1083/2006 (EE) Erregelamendua indargabetzen baitu. Horrez gain, Batzordearen 2014ko martxoaren 3ko 480/2014 (EB) Erregelamendu Eskuordetuan xedatutakoa bete beharko du. Erregelamendu horrek osatu egiten du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamendua (EB). Kontratistak bete beharko ditu Batzordearen 2006ko abenduaren 8ko 1828/2006 (EB) Erregelamenduaren, Kudeaketa Erregelamenduaren, 8. artikuluan ezarritako informazio- eta publizitate-neurriak, irailaren 1eko 846/2009 (EB) Erregelamenduak eta Batzordearen irailaren 17ko 832/2010 (EB) Erregelamenduak egindako aldaketak barne hartuta.

Era berean, honako hauek ere aginduko dute kontratuan: abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, zeinaren bidez presako neurriak onartu baitziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutzeko; HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen zuena; HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarrien eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko, eta HFP/1032/2021 Agindua, irailaren 29koa, zerga-arloko kontu korrantearen sisteman sartzeko eta uko egin izana jakinarazteko eskabide-eredua onartzen duena eta hura aurkezteko modua, baldintzak eta prozedura arautzen dituen, bai eta prozedura honetan aplikagarri denari dagokionez onesten diren garatzeko arau guztiak ere.

Bete behar du, ildo horretan, urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Agindua, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana betearazten duten prozeduretan interes-gatazkaren arriskua sistematikoki aztertzeari buruzkoa.

Gainera, kontratuak honako hauen arloko betebeharrak ere bete beharko ditu: komunikazioa; Europako Batzordearen, Iruzuraren Aurka Borrokatzeko Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolak eta organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea, bereziki iruzurra, faboritismoa, ustelkeria eta finantzaketa bikoitza eragozteko, eta horrez gain, dokumentazioa gordetzeari buruzko arauak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren, Batasunaren aurrekontu orokorrean aplikatu beharreko finantza-arauei buruzkoaren, 132. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

7. JURISDIKZIO ESKUDUNA.

Kondizio-agiri honen aurka eta berau exekutzeko ematen diren ebazpenen aurka honako errekurso hauek aurkezteko aukera egongo da:

- Aukerako berraztertze errekursoa, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan, urriaren 1eko 39/2015 Legean, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenean, ezarritakoari jarraikiz, hilabeteko epean.
- Errekurtso berezia, egokia denean (ezaugarrien taulako Q apartatuan ezarritakoaren arabera) kontratazio publikoaren arloan Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Euskal Autonomia Erkidegoko kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoan (KEAO), hamabost egun balioduneko epean, SPKLaren 50. artikuluari jarraikiz. Adjudikazioa errekurrituz gero, egintza automatikoki etenda geldituko da.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, administrazio-bidea agortu ostean, bi hilabeteko epean. Epea zenbatzen hasiko da errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta

hurrengo egunean, jurisdikzio hori arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legean xedatutakoari jarraikiz.

8. KONTRATATZAILEAREN PROFILA.

Interneteko honako helbide honen bitartez sartu ahalko da kontratazio-organoaren kontratatzailearen profiler: www.consorcioideaguas.com

Profil horretan, bai eta Sektore Publikoko Kontratazio Plataforman ere (www.contratacion.euskadi.eus), SPKLaren 63. artikuluan jasotako informazio guztia argitaratuko da.

9. AZPIKONTRATAZIOA.

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahalko du prestazioa kondizio-agiriekin ezartzen dutenaren arabera zati batean gauzatzea, betiere, ezaugarrien taulako O apartatuan ezarritakoaren arabera, prestazioa edo prestazioaren zati bat kontratistak zuzenean gauzatu behar ez badu.

Honako betekizun hauek bete beharko dituzte azpikontratuak egiteko orduan:

1. Ezaugarrien taulako O apartatuan horrela ezarrita badago, lizitatzaleek kontratuaren zer zati azpikontratatzeko asmoa duten zehaztu beharko dute eskaintzan; zatiaren zenbatekoa ez ezik, izena eta enpresa-profila ere adierazi beharko dituzte, lana gomendatuko zaien azpikontratisten kaudimen profesional edo teknikoaren erreferentziak emanik. Eskaintzan adierazitakoarekin bat ez datozen azpikontratuak –eskaintzan izenez adierazitako enpresaburuekin barik beste batzuekin egiteagatik edo eskaintzan adierazitako prestazioaren atalari buruzkoak barik beste atal batzuei buruzkoak direlako– ezin izango dira egin, harik eta jakinarazpena egiten denetik eta kontratua egiteko debekurik ez dutela adierazten duten egiaztagiria aurkezten direnetik hogeit egun igaro arte, aurretiaz berariaz baimendu diren kasuetan izan ezik, eta, betiere, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ez badu epe horren barruan haien aurka dagoela adierazteko jakinarazpenik egin. Araubide hori aplikatuko da, era berean, azpikontratatzaileak, eskaintzan, lanbide-profila deskribatuz identifikatu badira.

2. Edozelan ere, kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta gehienez hori exekutatzen hastean, azpikontratuak egiteko asmoa, eta honako hauek adieraziko ditu: prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen eta azpikontratatzailearen nortasuna, harremanetarako datuak eta ordezkari legalak. Era berean, behar bezala justifikatu beharko du hori gauzatzeko gaitasuna duela, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak nahiz esperientzia aipatuta eta kontratatze debekurik ez duela egiaztatuta.

Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari baldin eta kontratu nagusia gauzatu bitartean informazio hori aldatzen bada, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia jakinarazi beharko dio.

Azpikontratatzaileak azpikontratatu den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, hori jakinaraztea nahikoa izango da horren gaitasuna egiaztatze.

Azpikontratatzailearen gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak hartu behar badira, eta behar bezala justifikatzen bada.

3. Zeregin kritiko jakin batzuk azpikontratatzetik ez dagoela ezarri ahal izango da ezaugarrien taulako O apartatuan, eta zeregin gai horiek kontratista nagusiak zuzenean gauzatu beharko dituela. Kontratazio-espeditentean arazoitu beharko da zeregin kritikotzat zergatik hartu diren.

4. Azpikontratatzaileak kontratista nagusiaren aurrean baino ez dira behartuta egongo. Ezin izango da erabili Kode Zibilaren 1597. artikuluko zuzeneko ekintza.

5. Kontratistak langileen ordezkariak azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-legeriarekin bat etorriz. Halaber, enpresa azpikontratatzaileei ezaugarrien taulako L

apartatuan ezarritako exekuzio-kondizioak jakinarazi beharko dizkie, eta haiek ere bete beharko dituzte nahitaez.

6. Kontratatistak epe eta baldintzetan hitzartutako prezioa ordaindu beharko die azpikontratista edo hornitzaileei hogeita hamar egun naturaleko epean, faktura aurkezten dutenetik zenbatzen hasita. Onartzeko edo adostasuna emateko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da gehienez, aurkezten dutenetik zenbatzen hasita.

10. KONTRATUA LAGATZEA.

Kontratu honetatik eratortzen diren eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahalko dizkio kontratatistak, betiere lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak ez badira arrazoi erabakitzailea izan kontratua adjudikatzeko, eta lagatzeak ez badakar, izatez, merkatuko lehia murriztea.

Ezin izango da kontratua hirugarren bati lagatzea baimendu, kontratatistaren ezaugarrien funtsezko aldaketak eragiten baditu eta ezaugarri horiek kontratuaren funtsezko elementuak baldin badira.

Kontratatistek beren eskubideak eta obligazioak hirugarrenei lagatzeko, kondizio-agiriekin honako betekizun hauek eskatu behar dituzte gutxienez:

- Kontratazio-organismoak lagapena aurrez eta berariaz baimentzea.
- Baimendu egingo da honako betekizun hauek betez gero:
- Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gutxienez gauzatuta edukitzea edo, obra- eta zerbitzu-emakidako kontratua denean, haren ustiapena kontratu-iraupearen bosten batean gutxienez egin izana. Betekizun hori aplikatu beharrik ez da egongo, baldin eta lagapena gertatzen bada kontratista konkurtso-egoeran dagoenean, nahiz eta likidazio-fasea ireki izan edo konkurtsoa deklaratzeko epaitegi eskudunari jakinarazi dion negoziazioak hasi dituela birfinantzaketarako akordio bat erdiesteko edo hitzarmen-proposamen aurreratu bati atxikipenak lortzeko akordio bat erdiesteko, konkurtsoari buruzko legerian ezarritako baldintzetan.
- Aurrekoa gorabehera, hartzekodun pignorazioak edo hipoteka-hartzekodunak lagapena eskatzeko aukera izango du, baldin eta obra- eta zerbitzu-emakidako kontratuen kondizio-agirietako klausula argi eta garbiek ezartzen badute hirugarren bat emakidadunaren eskubide eta behar guztietan subrogatzeko aukera, emakida orain edo etorkizunean bideraezina izango delako zantzu argi eta zehatzik badago, aldez aurretik suntsiaraz dadin eragoztearren.

Emakidadunak administrazioarekin kontratuak egiteko gaitasuna eta kontratuaren exekuzio-fasearen arabera eskatu beharreko kaudimena eduki behar ditu, baita behar bezalako sailkapena ere, baldin eta halako betekizunik eskatu bazaio lagatzaileari, eta ez du kontratua egiteko debekurik eduki behar.

II. KAPITULUA: KONTRATUAREN LIZITAZIO-PROZEDURARI, BERMEEI, ADJUDIKAZIOARI ETA FORMALIZAZIOARI BURUZKO XEDAPENAK

A) KONTRATATZEKO AHALMENA ETA KAUDIMENA

11. KONTRATATZEKO GAITASUNA ETA KAUDIMENA. GAIKUNTZA PROFESIONALA.

1) Prozedura honetan parte hartu ahal izango dute pertsona natural edo juridikoek, espainiarrek nahiz atzerriarrek, banaka edo alde baterako elkarteak osatuta (SPKLaren 69. art.), baldin eta, jarduteko gaitasun osoa badute eta ez badaude SPKLaren 71.

artikuluaren edo aplikatu beharreko bestelako xedapenean zehaztutako egoeretako batean.

Pertsona juridikoak direnean, beren estatutuen edo eratze-arauen arabera berezko dituzten helburuen, xedeen edo jarduera-esparruaren arabekoak izan beharko dira kondizio-agiri honen xede den kontratuaren prestazioak.

2) Gainera, interesa duten pertsonen kaudimen ekonomiko eta finantzario nahikoa eduki beharko dute gorabehera ekonomiko eta finantzarioek kontratatuaren behar bezalako exekuzioa aldarazteko arriskurik egon ez dadin. Kontratua exekutatzeko kaudimen tekniko eta profesional egokia eduki beharko dute, halaber, eta hala badagokio, baita behar den gaikuntza profesionala ere.

Hori guztia egiaztatuko da ezaugarrien taulako F) eta G) apartatuetan zehaztutako bitartekoak erabiliz.

Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetan, baldin eta kontratista sortu berriko enpresa bada (halakotzat hartuko da gutxienez bost urteko antzintasuna duena), haren kaudimen teknikoa egiaztatuko da G) apartatuan sortu berriko enpresentzat berariaz zehaztutako bideak erabiliz, eta ez da inola ere eskatuko zerbitzu kopuru jakin bat exekutatzea.

3) Kaudimena beste enpresa batzuen erreferentzia eginez egiaztatzea.

Kontratu jakin bat egiteko beharrezkoa den kaudimena egiaztatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuen kaudimenean eta baliabideetan oinarritu ahalko da, horiekiko dituen loturen izaera juridikoa edozein dela ere, betiere frogatzen baldin badu kontratuaren exekuzioak irauten duen denbora osoan kaudimen eta baliabide horiek egiaz bere esku izango dituela, eta enpresaburuak aipatzen duen erakunde horrek kontratatzeke debekurik ez badu.

Kondizio beretan, SPKLaren 69. artikuluan aipatzen diren aldi baterako elkarateak osatuta aurkezten diren enpresaburuak ere izango dute aldi baterako elkarateaz kanpoko bitartekoetara jotzea.

Nolanahi ere, SPKLaren 90.1.e) artikuluan adierazten diren ikasketa- eta lanbide-tituluei eta dagokion esperientzia profesionalari buruzko irizpideei dagokienez, enpresek kasu batean soilik jo dezakete beste erakunde batzuen gaitasunetara, hau da, enpresa horiek direnak direlako gaitasunak beharrezkoak diren obrak exekutatuko dituzten eta zerbitzuak emango dituzten kasuan.

Enpresa batek beste erakunde batzuen gaitasunetara jo nahi duenean, botere adjudikatzailerari frogatuko dio behar diren baliabideak edukiko dituela erakundearen konpromisoa idatzia aurkeztuz.

Eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzailerak aurkeztuko du aurreko paragrafoan zehaztutako konpromisoa.

Enpresa batek beste erakunde batzuen gaitasunetara jotzen badu kaudimen ekonomiko eta finantzarioari buruzko irizpideei dagokienez, botere adjudikatzailerak erakunde horren eta besteen arteko baterako erantzukizunak eskatu ahal izango ditu kontratuaren exekuzioan, baita izaera solidarioz ere.

12. BEHIN-BEHINEKO BERMEA.

Lizitazioan parte hartzea ez da aurretik behin-behineko bermerik eratu beharko.

B) KONTRATUAREN ADJUDIKAZIOA.

13. PROPOSAMENAK AURKEZTEA. ALDERDI OROKORRAK. AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA.

- 1) Lizitatzailleek eskaintza bakarra aurkeztu ahal izango dute. Halaber, ezin izango dute beste eskaintzaile batzuekin aldi baterako elkartuta eskaintzarik aurkeztu, bakarka aurkeztu badute, ezta aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan egon ere.
- 2) Proposamena aurkezteak berarekin ekarriko du lizitatzailleak kontratua arautzen duten kondizio-agirietako klausula edo aurreikusitako kondizio guztien edukia onartzen duela, inolako salbuespenik edo erreserbarik gabe.
- 3) Lizitazioa elektronikoa bada, eskaintzak aurkeztuko dira ezaugarrien taulako I) apartatuan horretarako zehaztutako helbide elektronikoan.

Elektronikoak EZ diren lizitazioetan, berriz, proposamenak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Kontratazioko zuzendariordetzan aurkeztuko dira, hemen: Done Bikendi 8, 4. solairua (Albia I eraikina).

Proposamena postaz bidaltzen bada, lizitatzailleak proposamena posta-bulegoan noiz utzi zuen egiaztatu beharko du, eta kontratazio-organoari egun berean jakinarazi beharko dio, telex, telegrama edo faxa bidaliz, proposamena bidali duela. Ondorio horietarako, Kontratazioko zuzendariordetzak baino ezin du iragarkia jaso; haren faxa 94 4873110 da. Posta elektronikoz ere eman ahalko da haren berri ezaugarrien taulako A.4 apartatuan zehaztutako helbide elektronikora, bidalketa posta-bulegoan egin izanaren frogagiria erantsita. Honako baldintza hauetan bakarrik izango da baliozkoa posta elektronikoz egindako jakinarazpena: proposamenaren bidalketa eta jasotzea, haien datak, eta komunikazioen eduki osoak jasota gelditu badira, eta bidaltzailea nahiz hartzailea modu fidagarrian identifikatzen badira. Bi baldintzok bete ezean, proposamena ez da onartuko, kontratazio-organoak lizitazio-iragarkian adierazitako data eta ordua igaro ondoren jasotzen badu. Aurrekoa gorabehera, epe hori amaitu eta egutegiko hurrengo hamar egunetan proposamena jasotzen ez bada, ez da inola ere onartuko.

- 4) Eskaintzak aurkezteko epea. Ezaugarrien taulako I apartatuan adierazitakoa.

14. AZALPENAK

Interesdunek kondizio-agiriei eta gainerako dokumentazio osagarriari buruz egoki deritzoten informazio gehigarria eskatu ahalko dute ezaugarrien taulako A.4) apartatuan ageri den helbide elektronikora idatziz, eta informazio-eskaera horiei eskaintzak aurkezteko data baino sei egun natural lehenago erantzungo zaie beranduenez, betiere eskaera egin badute eskaintzak aurkezteko azken eguna baino hamabi egun natural lehenago. Erantzunak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren kontratazio-profilean argitaratuko dira.

Presakotzat hartutako espedienteetan, eskaintzak aurkezteko finkatutako epea bukatu aurreko sei eguneko berandueneko epea bukatu aurreko 4 eguneko izango da beranduenez erregulazio harmonizatuko obren, horniduren eta zerbitzuen kontratuetan, betiere prozedura ireki eta murriztu bidez adjudikatzen badira.

15. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO MODUA.

- A) ERA GUZTIETAKO PROZEDURETAKO (IREKIA, IREKI SINPLIFIKATUA ETA IREKI SUPER SINPLIFIKATUA) GUTUN-AZALEN EDUKI KOMUNA:**



Lizitazioa elektronikoki izapidetzen bada, proposamenak izen hauetako hiru artxibo elektronikotan aurkeztuko dira:

- 1.- ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA
- 2.- BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA
- 3.- AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Prozedura elektronikoa EZ bada, dokumentazioa gutun-azal itxietan aurkeztuko da, haren kanpoaldean datuok adierazita:

GUTUN-AZALA	1, 2 eta 3
DOKUMENTAZIOA	ADMINISTRATIBOA, BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK, AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
ESPEDIENTE-ZENBAKIA	XX
LIZITAZIOAREN IZENBURUA	XX
SOZETATEAREN IZENA	XX IFK. XX
SOZETATE-IZENA (HELBIDEA)	XX
AHALDUNAREN IZENA	XX NANA XX
JAKINARAZPENETARAKO HELBIDE ELEKTRONIKOA	XX
HARREMANETARAKO TELEFONOA	XX
HARREMANETARAKO FAXA	XX

2. gutun-azala edo artxibo elektronikoa (balio-judizioen mende dauden irizpideak) aurkeztuko da balio-judizioen mende dauden irizpideak daudenean bakarrik, halakorik ezean, bi gutun-azal aurkeztuko dira: 1.a eta 3.a.
Bi kasuetan, dokumentazio hau erantsi behar da:

A1) ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA BARNE HARTZEN DUEN GUTUN-AZALA:

- Erantzukizunpeko adierazpena, eranskinetan jasotako ereduaren arabera, edo Europar Batasuneko kontratazioko dokumentu bakarra (EBKDK), lizitazio bakoitzarekin batera argitaratuko den ereduari jarraikiz.
- Aldi baterako enpresa-elkartean (ABEE) lehiatuz gero, kide bakoitzak aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena. Era berean, ABEEa formalki eratzeak konpromisoa aurkeztu beharko dute kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, eta guztien izenak, egoerak eta ABEEko partaidetza zehaztu beharko dituzte.
- Baldin eta, SPKLaren 75. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, lizitatzailea beste entitate batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritzen bada, haietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena.
- Eskaintzailearekin lotuta dauden enpresen zerrendari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, AKPAren II. eranskinari jarraikiz.
- Hala badagokio, konfidentzialtasun-adierazpena, kondizio-agiri honetako 15. klausulan adierazitakoari jarraikiz.
- Ezaugarrien taulako H1) apartatuan ezarritako dokumentazio gehigarria, halakorik badago.

- Interes-gatazkarik ezaren adierazpena. Esku hartzen duten guztiek bete beharko dute interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA), adierazpenok kontratazio-espedienteetan sartzen joango dira. Adjudikaziodunak, kontratua formalizatu aurretik, IGEA bat aurkeztu beharko du, kondizio-agiriko IX. eranskinean ageri den ereduari jarraikiz. IGEA berdin eskatuko zaie kontratuaren exekuzioan parte hartzen duten azpikontratista guztiei dagokion kontratua formalizatu aurretik.
- SEEPean ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Kontratuaren faseetan esku hartzen duten guztiek nahitaez bete beharko dute SEEParen zeharkako printzipioak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (XII. eranskin gisa gehitu da).
- Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena aurkeztu beharko dute gainerako dokumentazioarekin batera, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorritz Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin, XI. eranskin gisa aurkeztutako ereduari jarraikiz.
- Finantzaketa bikoitzik izan ez dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpenaren eredu, XIII. eranskin gisa aurkeztuta.
- Erantzukizunpeko adierazpena, ingurumen-arloko sei helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH) [2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua] betetzeari buruzkoa; X. eranskin gisa aurkeztu da.

A2) BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA (IRIZPIDE KUALITATIBOAK) AURKEZTEKO GUTUN-AZALA:

- Lizitatzailleek beren eskaintzak balioesteko eta neurtzeko beharrezko diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, ezaugarrien taulako K) apartatuan ezarritako balio-judizioaren bidez kuantifikatzeko eskaintzak balioesteko irizpideei dagokienez.
- Kasu batean ere ezin da egon gutun-azal honetan ez eskaintza ekonomikorik, ez eskaintza ekonomikoaren agiri esanguratsurik, ez automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko agiririk.
- Ezaugarrien taulako B.5) apartatuan aldaerak (hobekuntzak) aurkezteko aukera aurreikusten bada, proposatutakoek zuzeneko lotura izan beharko dute kontratuaren xedearekin, eta ekonomikoki baloratuta egon beharko dira, betiere apartatu horretan ezarritako kondizioak beteta. Hobekuntzak, kontratazio-organoak adjudikazio-erabakian berariaz onartzen baditu, kontratuaren zati izango dira.

A3) AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO GUTUN-AZALA:

- **Proposamen bakarra izango du, lizitatzailleak edo haren ordezkioak izenpeturik, kondizio-agiri honen I. eranskin modura jasotako ereduaren arabera idatzita.**
- Ezaugarrien taulako H) apartatuan ezarritako dokumentazio gehigarria, halakorik badago.

Nolanahi ere, B.5) apartatuan baimentzen bada aldaerak aurkeztea, baimendutako adina irtenbide edo aldaera jasoko ditu, eta ondorioz, aldaerak egongo dira eskaintza ekonomikoetan.

- Eskaintza ekonomikoak ezarri behar den BEZa partida independente gisa adieraziko du.
- Eskaintza ekonomikoaren zenbatekoak ezingo du kontratuaren lizitazioaren aurrekontua gainditu.
- Ondore guztietarako ulertuko da eskainitako prezioan kontzeptu guztiak jaso direla, gastuak, tasak eta edozer arlo fiskaleko eta kontratistaren onura industrialeko erabakimenak barne, BEZa izan ezik, partida independente baten moduan jasoko baita.

Proposamenak ez dira onartuko, baldin eta omisioak, akatsak eta urratuak badituzte, eta haien ondorioz ezin badira behar bezala ezagutu administrazioaren ustez eskaintza balioesteko funtsezkoak diren alderdiak, ez badatoz bat aztertu eta onartutako dokumentazioarekin, lizitazio-aurrekontutik gorakoak badira, kondizio-agiri honetako 1. eranskin gisa ageri den proposamen-eredua nabarmen aldatzen badute, konparaziozko zifrak badituzte (adibidez, proposamenik onuragarriena baino halako gutxiago edo ehuneko halako gutxiago bezalako esamoldeak edo antzeko kontzeptuak) eta haietan lizitatuak onartzen badu ez dela bideragarria duen akatsaren eta hutsaltasunaren ondorioz.

Letretan adierazitako eskaintza eta zenbakiz adierazitakoa bat ez badatoz (soilik zenbateko horrek lizitazioaren gehienekoa gainditzen badu), letretan jasotzen den zenbatekoa gailenduko da, non eta dokumentazioaren araberrak irizpide arrazionalak erabiliz Kontratazio Mahaiak beste jarrera bat hartzen ez badu. Eskaintza ekonomikoaren kontu-akatsak zuzendu egingo dira. Eskaintzak baztertzea ez dakarten kontraesanak badaude, administrazioarako onuragarriena zer den, horixe hartuko da.

B) PROZEDURA MOTA BAKOITZAREN EDUKI ZEHATZA. Aurreko apartatuan zehaztutako dokumentazioaz gain, honako hau aurkeztu behar da:

B1) ERREGULAZIO HARMONIZATUKO ETA EZ HARMONIZATUKO PROZEDURA IREKIAN AURKEZTEA

Proposamenak **HIRU GUTUN-AZAL / ARTXIBO ELEKTRONIKO ITXITAN (1, 2 eta 3)** aurkeztuko dira, haien kanpoaldean kontratuaren izena adierazita, eta era honetan errotulaturak:

- 1. GUTUN-AZALA: ADMINISTRAZIO-DOKUMENTAZIOA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.
- 2. GUTUN-AZALA: BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK (balio-judizioen mende dauden irizpiderik ez badago izan ezik)
- 3. GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Eskatutako dokumentazioa:

1. GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA:

- Aurretik zehaztutako A1) apartatuko dokumentazioa gehitu beharko da.

2. GUTUN-AZALA: BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK (balio-judizioen mende dauden irizpiderik ez badago izan ezik).

- Aurretik zehaztutako A2) apartatuko dokumentazioa gehitu beharko da.

3. GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEN BURUZKO DOKUMENTAZIOA.

- Aurreko A3) apartatuan zehaztutako dokumentazioa gehitu behar da, eta hala badagokio, ezaugarrien taulako H puntuan ezarritako dokumentazio tekniko.

B2) PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATUAN AURKEZTEA (SPKL-AREN 159.1 ART.).

Proposamenak **GUTUN-AZAL / ARTXIBO ELEKTRONIKO BATEAN** aurkeztuko dira, haren kanpoaldean kontratuaren izena adierazita, eta era honetan errotulaturatuta:

1. GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA PROPOSAMENA.

- Aurretik zehaztutako A1) eta A3) apartatuetako dokumentazioa gehitu beharko da.

Balio-judizioen mendeko irizpideak balioesten badira, proposamenak **BI GUTUN-AZAL / ARTXIBO ELEKTRONIKOTAN** aurkeztuko dira, era honetan errotulaturatuta:

1. GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK.

- Aurretik zehaztutako A1) eta A2) apartatuetako dokumentazioa gehitu beharko da.
- Sektore Publikoko Lizitatzailleen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko edo Autonomia Erkidegoko dagokion Erregistro Ofizialeko inskripzioaren ziurtagiria, eskaintzak aurkezteko azken egunean, betiere ezaugarrien taulako H.1) apartatuan bestelakorik ezartzen ez bada. **Ziurtagiriarekin batera erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da, ziurtagirian zehaztutakoak ez duela aldaketarik izan adierazteko.** Ondorio horietarako, onargarritzat ere joko da baldin eta lizitatzailleen proposamenak egiaztatzen badu dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera, horretarako behar den dokumentazioarekin batera, aurkeztu duela, betiere eskaera bada eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa. Eskaera jaso izanaren agiria aurkeztuz egiaztatuko da, zeina dagokion erregistroak emango duen, eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztu duela eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez duela esaten duen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruko kontratu honetarako behar den dokumentazioa.
 - Interes-gatazkarik ezaren adierazpena. Esku hartzen duten guztiek bete beharko dute interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA), adierazpenok kontratazio-espeditentean sartzen joango dira. Adjudikaziodunak, kontratua formalizatu aurretik, IGEA bat aurkeztu beharko du, kondizio-agiriko IX. eranskinean ageri den ereduari jarraikiz. IGEA berdin eskatuko zaie kontratuaren exekuzioan parte hartzen duten azpikontratista guztiei dagokion kontratua formalizatu aurretik.
 - SEEPean ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Kontratuaren faseetan esku hartzen duten guztiek nahitaez bete beharko dute SEEParen zeharkako printzipioak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (XII. eranskin gisa gehitu da).
 - Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena aurkeztu beharko dute gainerako dokumentazioarekin batera, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorritz Datu pertsonalak babesteari

eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin, XI. eranskin gisa aurkeztutako ereduari jarraikiz.

- Finantzaketa bikoitzik izan ez dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpenaren eredia, XIII. eranskin gisa aurkeztuta.
- Erantzukizunpeko adierazpena, ingurumen-arloko sei helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH) [2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua] betetzeari buruzkoa; X. eranskin gisa aurkeztu da.

2. GUTUN-AZALA: AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK.

- Aurretik zehaztutako A3) apartatuko dokumentazioa gehitu beharko da.

B3) PROZEDURA IREKI SUPER SINPLIFIKATUAN AURKEZTEA (SPKLaren 159.6 ART.).

GUTUN-AZAL / ARTXIBO ELEKTRONIKO BAT edukiko da, honako dokumentu hauek barne hartuta:

1. GUTUN-AZALA: ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA ETA PROPOSAMENA:

- Aurreko A1) eta A3) apartatuetan zehaztutako dokumentazioa gehitu behar da, eta hala badagokio, ezaugarrien taulako H puntuan adierazitako dokumentazio teknikoa edo dokumentazio gehigarria.
- Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko edo Autonomia Erkidegoko dagokion Erregistro Ofizialeko inskripzioaren ziurtagiria, eskaintzak aurkezteko azken egunean, betiere ezaugarrien taulako H.1) apartatuan bestelakorik ezartzen ez bada. **Ziurtagiriarekin batera erantzukizunpeko adierazpena ere aurkeztu behar da, ziurtagirian zehaztutakoak ez duela aldaketarik izan adierazteko.** Ondorio horietarako, onargarritzat ere joko da baldin eta lizitatzailaren proposamenak egiaztatzen badu dagokion erregistroan inskribatzeko eskaera, horretarako behar den dokumentazioarekin batera, aurkeztu duela, betiere eskaera bada eskaintzak aurkezteko azken eguna baino lehenagokoa. Eskaera jaso izanaren agiria aurkeztuz egiaztatuko da, zeina dagokion erregistroak emango duen, eta nahitaezko dokumentazioa aurkeztu duela eta zuzentzeko errekerimendurik jaso ez duela esaten duen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruko kontratu honetarako behar den dokumentazioa.
 - Interes-gatazkarik ezaren adierazpena. Esku hartzen duten guztiek bete beharko dute interes-gatazkarik ezaren adierazpena (IGEA), adierazpenok kontratazio-espeditentean sartzen joango dira. Adjudikaziodunak, kontratua formalizatu aurretik, IGEA bat aurkeztu beharko du, kondizio-agiriko IX. eranskinean ageri den ereduari jarraikiz. IGEA berdin eskatuko zaie kontratuaren exekuzioan parte hartzen duten azpikontratista guztiei dagokion kontratua formalizatu aurretik.
 - SEEPean ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Kontratuaren faseetan esku hartzen duten guztiek nahitaez bete beharko dute SEEParen zeharkako printzipioak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena (XII. eranskin gisa gehitu da).
 - Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena aurkeztu beharko dute gainerako dokumentazioarekin batera, Europa mailako araudi aplikagarrian

aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorritik Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin, XI. eranskin gisa aurkeztutako ereduari jarraikiz.

- Finantzaketa bikoitzik izan ez dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpenaren eredia, XIII. eranskin gisa aurkeztuta.
- Erantzukizunpeko adierazpena, ingurumen-arloko sei helburuei kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa (DNSH) [2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua] betetzeari buruzkoa; X. eranskin gisa aurkeztu da.

16. KONFIDENTZIALTASUNA

SPKLaren 133. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, enpresa lizitatzailleek adierazi beharko dute, hala badagokio, adierazpen osagarri arrazoituen bitartez, aurkeztutako dokumentu administratibo eta tekniko eta datuetatik zein diren, bere iritziz, konfidentzialtzat jo beharrekoak. Hori, gainera, argi eta garbi adierazi beharko da (gaininprimatua, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatzailleek aurkeztutako dokumentuak eta datuak konfidentzialtzat hartuko dira, baldin eta, besteak beste, sekretu tekniko edo merkataritzakoak badira, eskaintzen alderdi konfidentzialak badira, eta bere edukia dela-eta lehia faltsutzeko erabil daitekeen gainerako edozein informazio badira, dela lizitazio-prozesu horretan, dela geroako gainerako prozesuetan. Kontratazio-organoak eta haren mendeko zerbitzuek konfidentzialtasuna dela-eta duten betebeharra ezingo da hedatu adjudikaziodunaren eskaintzaren eduki osora, ez eta kontratazio-organoak lizitazio-prozeduran zehar zuzenean edo zeharka sortzen dituen txostenen eta dokumentazioaren eduki osora ere. Soilik, zabalkunde murriztua duten dokumentuetara hedatu ahalko da, eta ez, inolaz ere ez, publikoki eskuragarriak diren dokumentuetara. Adierazpen hori BEHAR BEZALA ARRAZOITUTA aurkeztu ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da.

17. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK.

Adjudikazioduna hautatzeko, ezaugarrien taulako K.1 apartatuan zehaztutako irizpideak hartuko dira kontuan.

Baldin eta bi lizitatzaileraren edo gehiagoren arteko guztizko puntuazioan berdinketarik badago, ezaugarrien taulako K.2) apartatuan ezarritako moduan hautsiko da.

18. KONTRATAZIO-MAHAIA / ADITUEN BATZORDEA.

Kontratazio Mahaia edo, hala badagokio, Adituen Batzordea, eratu egingo dute Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren indarreko Estatutuetan ezarritakoari jarraikiz, ezaugarrien taulako J apartatuan adierazitako pertsonak. Prozedura ireki super sinplifikatuan ez da Mahairik egongo ezaugarrien taulak berariaz ezarri ezean.

19. PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA ADJUDIKAZIO-PROPOSAMENA

1) Kontratazio-mahaiak 1. gutun-azalaren dokumentazioa kalifikatuko du. Zuzentzeko moduko akatsik badago, lizitatzaillei 3 egun emango zaizkie haiek zuzentzeko.

2) Ondoren, mahaiak irizpide kualitatiboen gutun-azala irekiko du eta proposamenak aztertuko ditu, betiere irizpide kualitatiborik badago.

3) Irizpide kualitatiboak balloetsi ostean, edo, halakorik ez badago, 1. gutun-azala ireki ostean, jendaurrean irekiko da formulak aplikatuz kuantifikatzeko irizpideen gutun-azala.



Gutun-azal hori jendaurrean irekiko da beti, lizitazioan bitarteko elektronikoak erabiltzeko aukera dagoenean izan ezik.

4) Baldin eta eskaintza batzuk, ustez, bideraezinak badira anormalki txikiak direlako, ezaugarrien taulako K.3 apartatuan ezarritakoari jarraikiz, errekeritu egingo zaio/zaie ausarkeriaz jokaturako lizitatzaleari/lizitatzaleei, eta epe nahikoa eman, prezioen edo kostuen maila txikia edo eskaintza anormala delako oinarritzat hartutako beste edozein parametro, arrazoituta eta xehetasunez, justifikatu eta banakatzeko, horretarako egoki diren informazioa eta dokumentuak aurkeztuz, guztia SPKLaren 149. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

5) Mahaiak edo, halakorik ezean, kontratazio-organoak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu aurkezturiko proposamenak, eta horren ostean, dagokion proposamena egingo dio kontratazio-organoari, betiere sailkapena kontratazio-mahaiak egiten badu.

6) Prozedura super sinplifikatuetan, lizitazio elektronikoko plataformaren bidez bermatzen da proposamenak ez direla irekitzen, harik eta proposamenak aurkezteko epea amaitzen den arte, eta ez da egingo, beraz, proposamenak irekitzeko jendaurreko ekitaldirik, eta, SPKLaren 326.1 artikuluan ezarritako aukeraren arabera, ez da kontratazio-mahaia eratuko.

Proposamenak lizitazio elektronikoko plataformaren bitartez egingo da, Ur Partzuergoaren Kontratazioko zuzendariordetzaren instalazioetan.

DOKUMENTAZIO-ERREKERIMENDUA, BERMEA ETA ADJUDIKAZIOA.

1) Dokumentazio-errekerimendua eta bermea.

Kontratazio-organoak mahaiaren proposamena onartzen duenean, dagozkien zerbitzuek errekeritu egingo diote eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaleari, hamar egun balioduneko epean (zazpiko epean prozedura ireki sinplifikatuan eta super sinplifikatuan), errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita:

1) Honako dokumentazio hau aurkezteko (dokumentazioa zeukalako erantzukizunpeko adierazpena egin zuen Europar Batasuneko kontratazioko dokumentu bakarra aurkeztean, betiere aurretik ez badu aurkeztu), bai lizitatzaleari dagokionez, bai haien gaitasunez baliatzeko jotzen duen beste enpresa batzuei dagokienez:

a) Enpresaburuaren nortasuna egiaztatzen duen dokumentazioa, era honetan:

a.1.- Pertsona fisikoa denean, Nortasun Agiri Nazionala, eta pertsona juridikoa denean, sozietatearen eraketa-eskritura edo hura aldatzekoa, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan inskribatuta, baldin eta aplikatu beharreko legeria espezifikoak betekizun hori eskatzen badu. Hala ez bada, jarduteko gaitasuna frogatzeko honako hauetako bat aurkeztu behar da: dagokion erregistro ofizialean inskribatutako eraketa-eskritura edo -agiria, estatutuen agiria edo sortze-egintzaren agiria, jarduerari buruzko arauak zehazten dituen.

a.2.- Ordezkaritza-ahalordeak, behar bezala askietsiak.

Espainiakoak ez diren enpresaburuaren jarduteko gaitasuna, **Europar Batasuneko estatuetako herritarrak badira**, haien estatuko legediaren arabera dagokien erregistroan inskribatuta daudela erakutsiz frogatuko da, edo zinpeko aitorpena edo

ziurtagiri bat aurkeztuz, erregelamenduan ezarritakoaren arabera, aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenak kontuan hartuta.

Europar Batasunekoak ez diren estatueta enpresaburuek, espainiarrak ez direnek, jarduteko gaitasuna dutela egiaztatzeko, Espainiak dagokion estatuan duen diplomazia-misio iraunkorraren txostena aurkeztu beharko dute, edo enpresako egoitzaren lurralde-esparruari dagokion kontsultxeko bulegoaren txostena. Obra-kontratuak egiteko, beharrezkoa izango da, gainera, enpresa horiek Espainian sukurtsala irekita izatea, beren eragiketarako ahalduak edo ordezkariak izendatuta izatea, eta sukurtsalak Merkataritzako Erregistroan izena emanda egotea.

Zenbait enpresak lizitazioan parte hartzen badute aldi baterako enpresa-elkartea osatuta, ABEEa formalki eratzeke eskritura aurkeztu beharko dute. Era berean, enpresaburuen elkartearen izenean ordezkari edo ahaldu bakar bat izendatu behar dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko aginpide nahikoarekin, harik eta kontratua azkendu arte, nahiz eta enpresek, garrantzi handiko kantitateak kobratu eta ordaintzeko, ahalmen mankomunatuak izan ditzaketen.

b) Dagokion sailkapena duela, hala badagokio, edo kondizio-agiri honetan eta ezaugarrien taulako F) eta G) apartatuetan exijitutako kaudimen ekonomikoko, finantzarioko eta teknikoko eta gaikuntza profesionaleko betekizunak betetzen dituela.

Baldin eta beste enpresa batzuetara jo badu kaudimena egiaztatzeko, kontratua exekutatzen zuzendu edo atxikitzea hitzemandako bitartekoak benetan dauzkalako egiaztalaria aurkeztu beharko du, SPKLaren 76.2 artikuluari jarraikiz.

Dokumentuak jatorrizkoak izango dira edo kopia autentikoak edo konpultsatuak arloan indarrean dagoen legeriaren arabera, eta gaztelaniazkoak edo era ofizialean itzuliak.

Sektore Publikoko Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo EAEko Erregistro Ofizialean erregistratuta egotea egiaztatzen duen ziurtagiria aurkezteak, bertan jasotakoaren arabera eta kontrako frogarik ez badago, salbuetsi egingo du lizitatzaila enpresaburuaren gaitasun-kondizioak aurkeztu beharretik honako hauei dagokienez: nortasuna eta jarduteko gaitasuna, ordezkaritza, gaikuntza profesionala edo enpresariala, kaudimen finantzarioa eta ekonomikoa eta teknikoa edo profesionala, sailkapena eta gainerako inguruabar inskribatuak, eta, orobat, bertan jaso beharreko kontratatzeke debekuren baten eraginpean egotea edo ez egotea (SPKLaren 96. art.).

Aurkeztutako dokumentazioan zuzen daitezkeen akatsak ikusiz gero, errekerimendua egingo dio interesdunari, eta hiru (3) eguneko epea emango dio, akatsak zuzen ditzan.

2) Honako hauei buruzko frogagiriak aurkeztea:

a) Estatu-ogasunarekiko eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ogasunarekiko zerga-betebeharrak —espezifikoak administrazioarekin kontratuak egiteko— eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea.

b) Hala badagokio, kontratazio-organoak kondizio-agiriei jarraikiz eskatzen dion eta kontratua exekutatzen zuzendu edo atxikitzea hitzemandako bitartekoak benetan edukitzea.

c) Ezaugarrien taulako E) apartatuan xedatutakoari jarraikiz bidezkoa den bermea eratzea, hala badagokio.

Behin betiko bermearen zenbatekoa adjudikazio-zenbatekoaren % 5 izango da (BEZik gabe), eta SPKLaren 102.7 artikuluan aipatutako behin-behineko prezioak dituzten kontratuei dagokienez, ehuneko hori kalkulatu da finkatutako gehieneko prezioa (BEZik gabe) kontuan hartuta. Behin betiko bermea eratuko da SPKLaren 107. artikuluan ezarritako moduan, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Diruzaintzan aurkeztuko da.

Behin betiko bermea eratzetik salbuetsita egongo dira Estatuko legeetan edo dagozkien xedapen autonomikoetan salbuespena aitortuta duten erakundeak, azken horien kasuan dagokien eskumen-eremura mugatuta. Baldin eta, kontratu-aldaketaren ondorioz, kontratu-balioa aldatuz gero, 15 egun naturaleko epea egongo da bermea doitzeko, adjudikaziodunari kontratua aldatzeko ebazpena jakinarazten zaion egunetik aurrera zenbatuta.

Arrazoituta, ezaugarrien taulako E) apartatuan horrela ageri bada, berme osagarria ezarri ahalko da, behin betiko bermearen zenbatekoari gehituta, SPKLaren 107.2 artikuluan ezarritako mugekin.

Baldin eta, horretarako emandako epean, adjudikaziodun proposatutakoak ez badu behar den dokumentazioa aurkeztzen, puntuazioan hurrengo tokian dagoen izangaiaren aldeko adjudikazio-proposamena egingo da, eta dagokion epea emango zaio dokumentazioa aurkezteko eta bermea klausula honetan adierazitako moduan eratzeko (SPKLaren 150.2 art.).

Lizitatzailerak kontratua egiteko debekua izango du, SPKLaren 71.1.e) artikuluan ezarritakoari jarraikiz, baldin eta gaitasunari, ordezkartzari eta kaudimenari buruzko erantzukizunpeko adierazpen faltsuak egin baditu.

Lizitatzaileraren batek azpiapartatu honetan ezarritakoa zehaztutako epean betetzen ez badu, eta hori haren dolo, erru eta zabarkeriagatik izan bada, kontratua egiteko debekua jaso ahalko du SPKLaren 71.2.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

2) Adjudikazioa

Jasotakoan eta beharrezko den dokumentazio guztia zuzena bada, Kontratazio Organoak adjudikatzeko ebazpena emango du, behar bezala arrazoituta, ondoren, izangai edo lizitatzailerei jakinaraziko die, eta adjudikazio-iragarkia argitaratuko du kontratatzailearen profilean.

20. KONTRATUA FORMALIZATZEA.

1) Kontratua adjudikatuta, idatziz formalizatu beharko da nahitaez, administrazio-agiri bidez, zeinaren hiru ale, egintza-batasunean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko gerenteak edo presidentek sinatuko duen. Hala ere, kontratuaren eskritura publikoa egingo da, kontratistak hala eskatuz gero, eta hura emateko gastuak haren kontura izango dira.

A) Izapidetze arruntaren kasuetan, lizitatzailerek eta izangaiek adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 egun balioduneko epearen barruan gehienez.

Erregulazio harmonizatuko prozedura bada edo errekurtsio berezia jar badakioke SPKLaren 153.3 artikulua arabera, ezin izango da formalizatu, harik eta adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzailerei eta izangaiei igortzen zaienetik 15 egun baliodun igarotzen diren arte. Epe hori igarota, kontratistari errekerituko zaio 5 egunean formalizatzeko, etetea dakarren errekurtsorik jarri ezean, edo jarrita ere, errekurtsioa ebazteko organo eskudunak etetea kentzen badu, kondizio-agiri honen laugarren klausulan ezarritakoari jarraikiz.

B) Izapidetze urgentearen kasuetan, lizitatzailerek eta izangaiek adjudikazioaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 7 eguneko epearen barruan formalizatuko da kontratua. Erregulazio harmonizatuko prozedura bada edo errekurtsio berezia jar badakioke SPKLaren 153.3 artikulua arabera, ezin izango da formalizatu, harik eta adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzailerei eta izangaiei igortzen zaienetik 15 egun baliodun igarotzen diren arte. Epe hori igarota, kontratistari errekerituko zaio 3 egun baliodunean formalizatzeko.

C) Prozedura ireki super sinplifikatuan, ezaugarrien taulan kontrakorik jakinarazi ezean, ez da beharrezkoa izango kontratua formalizatzea. Kontratistak adjudikazio-ebazpenaren onespina sinatuz formalizatuko da kontratua.

2) Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik kontratua ez bada formalizatu adierazitako epean, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren % 3 eskatuko zaio, BEZik gabe, zehapen-kontzeptuan. Zenbateko hori jasotzeko, behin betiko bermera joko da lehenik, horrelakorik eratua den kasuetan, SPKLaren 71.2.b) artikuluan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

Kasu horretan, eskaintzak sailkatuta geratu diren ordenari jarraituz, hurrengo lizitatzaileri adjudikatuko zaio kontratua, hark SPKLaren 150.2 artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta, horretarako, aurreko apartatuan ezarri diren epeak aplikatuko dira.

Kontratua ez formalizatzea administrazioari egotzi ahal zaizkion kausengatik gertatu bada, berandutzeak eragindako kalte-ordainak ordainduko zaizkio kontratistari.

3) Kontratua formalizatzeak hura burutzen du, eta horrenbestez, ezin izango da exekutatzen hasi gertatzen den arte.

4) Kontratua formalizatuta, berau kontratatzailearen profilean argitaratuko da, adjudikazio-iragarkiaren datu berekin.

Erregulazio harmonizatuko kontratua bada, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko da.

III. KAPITULUA: ZERBITZU-KONTRATUAREN XEDAPEN ZEHATZAK

21. ZERBITZU-KONTRATUAREN BETEBEHAR ESPEZIFIKOAK. -

- Ez dago kontratua exekutatzerik aurretik formalizatzen ez bada.
- Kontratua bertan eta kondizio-agirietan ezarritakoari jarraituz exekutatuko da, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontratistari hura interpretatzeko emandako jarraibideekin bat.
- Kontratistak kontratua guztiz exekutatzeke betebeharra du, SPKLaren 192. eta 197. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

- Lana egin bitartean kontratua aldatu beharrik badago kondizio-agiri honetan ezarritakoari jarraikiz, SPKLaren 190., 191. eta 203. artikuluetan xedatu bezala jokatu da. Kontratuaren kondizioak aldatzen diren bakoitzean, kontratistak lan-programa eguneratu beharko du.
- Kontratua eteten bada, SPKLaren 208. artikuluan eta garatzeko arauetan xedatutakoa aplikatuko da. Baldin eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak lanak etetea erabakitzen badu, dagokion etete-akta egingo da.
- SPKLaren 311. artikuluekin bat etorritik, kontratista arduratuko da emandako zerbitzuez eta honako hauek Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari eta hirugarrenei ekarritako ondorioez: kontratua exekutatzean izaniko omisioek, manuen eta erregelamenduen urraketek, akatsek, metodo desegokiek eta ondorio okerrek.
- Kontratazio-organoak erabakiko du kontratistaren prestazioa hura exekutatu eta betetzeko ezarritako preskripzioei egokitzen zaien, SPKLaren 311. artikuluan ezarri bezala.
- Adjudikaziodunak zerbitzua itundutako kondizioetan bermatu behar du kontratuaren indarraldi osoan, hura oporraldietan eta antzeko bestelako inguruabarretan aldatzeko aukerarik gabe.
- SPKLaren 210. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik egingo da harrera.
- Hala kontratistak nola azpikontratistek ezaugarrien taulako L) apartatuan zehaztutako exekuzio-kondizio bereziak bete beharko dituzte.

Horiek ez betetzeak ekarriko du zigorrak ezartzeko espedienteak hastea; zigorrok, proportzionaltasunari jarraikiz, kontratuaren prezioaren % 10etik % 50era bitartekoak izango dira, eta gerta liteke kontratua suntsiaraztea ekartzea ere bai.

22.1. Kontratuaren arduraduna SEEPean xedatutakoa aplikatuz

Enpresa kontratistak administrazioarekiko solaskide bakarra izendatu beharko du Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren eremuan.

Administrazioak behar bezalako kontrola eta jarraipena egin dezan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari aplikatu beharreko zeharkako printzipioen gainean, enpresa kontratistak eremu horretan eskatzen dioten dokumentazio guztia aurkeztu beharko du.

Halaber, kontratuaren arduradunak laguntzaileak eduki beharko ditu, titulu profesionalen edo ezagutza espezifikoen arabera, eta kontratua adjudikatzeko ebazpenean bertan identifikatuko dira, edo, hori une hartan egiterik ez badago, ondorengo beste ebazpen batean.

Kontratuaren arduraduna hauxe da: enpresa adjudikaziodunaren eta kontratazio-organoaren arteko solaskidea.

Arduradunak eta laguntzaileek kontratuaren xede diren tokietarako sarbide librea izango dute eginkizunak betetzeko, eta egoki iritzitako ikuskapenak egiteko aukera izango dute, segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinatzaile izendatutako pertsonak lagunduta, betiere kokalekuak eta haien kondizio teknikoak erabakigarriak badira kontratuaren xede diren prestazioak egiteko. Kasu horietatik kanpo, kontratuaren arduradunak sartzea beharrezkoa dela justifikatu beharko du, berariaz eta xehetasunez, administrazio-espedientean, eta kontratazio-organoak aldeztu aurretik berretsi beharko du.

Era berean, egoki iritzitako informazioa eta dokumentazioa eskatu ahalko dute, eta behar diren bilera guztiak deituko dituzte kontratua egoki exekutatzeke eta haren exekuzioan izaniko gorabehera guztiak konpontzeko.

Kontratuaren arduradunak egokiak diren gidalerroak ezarriko ditu. Bereziki, honako eginkizun hauek dagozkio:

- a. Egiaztatzea exekuzioa kontratuaren kondizioei jarraikiz eta aurreikusitako epean egiten dela. Eginkizun horrek ahalbidetuko du behar diren ekintzak egitea

- egiazatu dadin ea honakook betetzen diren: kontratuaren kalitate-betekizunak eta klausula sozialak, ingurumenaren arlokoak eta klausula berritzaileak.
- b. Kontratazio-organoari era guztietako ez-betetzeen berri ematea eta, hala dagokionean, proposatzea prozedura has dadin zigorrak ezartzeko, kontratua eteteko, kontratua suntsiarazteko eta bestelako neurriak hartzeko, kontratua behar bezala betetzen dela bermatzeko eta administrazioari enpresa kontratistak kontratua ez betetzeak ekarritako kalte eta galerengatiko ordaina emateko.
 - c. Kontratuan behar diren aldaketak gomendatzea, hala nola zehaztapenak, jarraibideak eta eragiketa efikazagoak dakartzaten bestelako betekizunak.
 - d. Baimentzea, contratazio-organoaren jarraibideak aintzat hartuta, kontratura atxikitako giza baliabideak eta bitarteko materialak alda daitezen, kontratua aldatzea ekarri ezean.
 - e. Luzapenen beharra eta bidezkotasuna informatzea eta arrazoitzea.
 - f. Ziurtatzea, hala badagokio, enpresa kontratistak azpikontratistei ordaintzeko betebeharra betetzen duela.

Baldin eta, kontratua exekutatu bitartean, kontratuaren arduradun eta laguntzaile izendatuak aldatzen badira, enpresa kontratistari emango zaio horren berri, idatziz, eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

22. KONTRATUA ALDATZEA. -

Kontratazio-organoak, kontratua burututa eta interes publikoko arrazoiengatik, kontratua aldatzea erabaki ahal izango du, SPKLaren 205.etik 207.era bitarteko artikuluetan ezarritako kasuetan eta moduan.

Kontratua aldatzeko aukera egongo da ezaugarrien taulako Ñ) apartatuan berariaz horrela ezarrita badago.

Halakorik ezean, SPKLaren 205. artikulua aplikatuta baino ezin da kontratua aldatu.

Kasu horietan, contratazio-organoak erabakitako aldaketak nahitaezkoak izango dira kontratistentzat, betiere kontratuaren prezioa % 20tik gora aldatzen ez badute.

Baldin eta aldaketak unitateak ezabatzea edo gutxitzea badakar, kontratistak ez du kalte-ordainik eskatzeko eskubiderik izango.

Kontratazio-organoak behar bezala onartzen ez dituen kontratu-aldaketek, agiri honetan ezarritakoari jarraikiz, kontratistaren erantzukizuna izango dira, eta galdu egingo du baimenik gabe gauzatutako aldaketengatik ordainik jasotzeko eskubidea.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kontura finantzatutako kontratuei dagokienez, aurreikusi gabeko aldaketak izan litezke zehaztutako betekizunak aldatu beharra dagoelako arau-aldaketek planari buruzko ezaugarri/baldintza desberdinak ekartzearen ondorioz.

Kontratua aldatzeko kausa izango da agintari arduradunak agintzea DNSHaren eta etiketa berde eta digitalaren arloan neurri zuzentzaileak hartu beharra dagoela.

23. BERMEA ETA KONTRATU-XEDEA HARTZEA. -

- 1) Hitzartutako prestazioak amaituta, haien harrera egingo da, eta ezaugarrien taulako D) apartatuan zehaztutako bermealdia egongo da. Kontratazio-organoak irizten badio kontratistak ez duela lana hitzartu bezala egin, eta errua (hutsak edo akatsak) kontratistarena berarena bada, administrazioak ez du zertan lan hori onartu, eta



onartzen ez badu, ez du zertan ezer ordaindu, edo, aurretik zer edo zer ordaindurik bazuen, ordaindutakoa atzera berriz eskuratzeko eskubidea izango du.

2) Bermealdian ikusten bada eginiko lanetan hutsik edo akatsik dagoela, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontratistari halako guztiak konpontzeko eskatzeko eskubidea izango du.

3) Berme-epea behin amaiturik dela, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ez badu formalizatu aurreko apartatueta aipatzen diren eragozpenetako edo salaketetako baten bat, kontratista erantzukizunetik libre geldituko da egindako prestazioari dagokionez.

24. EPEAK BETETZEA.

1) Kontratistak kontratua gauzatzeko finkatutako azken epearen barruan bete behar du prestazioa, eta elkarren jarraian exekutatzeko izendatutako epe partzialak ere bete behar ditu.

2) Baldin eta adjudikazioduna, hari egotz dakizkiokeen kausengatik, berandutu egin bada epe osoa betetzean, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak berdin aukeratu ahalko du kontratua suntsiaraztea edo eguneko zigorrak ezartzea, 0,60 euroko proportzioan kontratuaren prezioa 1.000 euro bakoitzeko.

3) Berandutzeagatiko zigorrak % 5en multiplo batera iristen badira, eta kontratistaren ez-betetzea epe partzialak exekutatzeari buruzkoa bada edo haiek betetzean izandako berandutzetik arrazoiz ondorioztatzen bada epe osoa betetzea ezinezkoa dela, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratazioa suntsiarazteko edo zigor gehiago ezarri eta kontratua exekutatzen jarraitzea erabakitzeko.

4) Zigorrak aplikatzeak eta ordaintzeak ez du baztertzen Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izatea kontratistari egotzitako atzerapenaren ondorioz sortutako kalte eta galerengatik.

25. ZIGORRAK.

1.- Zigorren aplikazioa.

Baldin eta kontratistak ez baditu betetzen agiri honetan eta SPK Lan zehaztutako baldintza eta betekizun batzuk, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ez-betetzea arrazoitu eta dokumentatu ostean, eta interesdunari 5 egun naturaleko epean entzunaldia eskainita, hurrengo apartatueta zehaztutako zigorrak ezarri ahalko ditu, zer kausak eragin dituzten kontuan hartuta.

Portaera kontratuaren ez-betetzetat hartzen den edo ez alde batera utzita, gauzatu gabeko prestazioei dagokien zenbatekoa kenduko du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak enpresari ordaindu beharrekotik, eta, kalte eta galerak sortzen badira, dagokion kalte-ordaina eskatuko du.

2.- Falta zigorgarriak.

Kontratuaren ondorioetarako, kontratazioaren ekintza eta omisio oro hartuko da falta zehagarritzat, baldin eta agirian eta SPK Lan zehaztutako eskakizunak urratzea badakar. Arau-hausterik dagoen edo ez zehazteko, honako hauek baloratu beharko dira: eman gabeko prestazioaren garrantzia, zabarkeriarik dagoen edo ez, prestazio-omisioa errepikatu den, gorabeherak kontratu osoan zer garrantzi duen, etab. Horrenbestez, zigorrak aplikatzeko orduan, exekutatutako prestazioen kalitatea hartuko da kontuan, eta, kontratu osoan, zigorra eragin duen ez-betetze motaren proportzionalak izan beharko dira. Balorazio horretatik arau-hauste bat dagoela ekitatiboki eta proportzionalki ondorioztatzen denean baino ez da hasiko zigorrak ezartzeko prozedura. Balorazio hori

egin beharko da azaldutako irizpideak (ekitatea eta proportzionaltasuna) kontuan hartuta.

Kontratatik eginiko faltak honela sailkatuko dira, faltaren garrantzia, proportzionaltasuna eta nahitasuna kontuan hartuta: arina, astuna edo oso astuna, honako irizpide hauei jarraikiz:

Falta arina: Falta arinak izango dira, baldin eta, kontratuaren funtzionamendu eta efizientziarako aurkako eragina izanagatik, ez badira gertatu jarduketa maltzur baten ondorioz, eta pertsona, animalia, gauza eta abarrentzat arriskutsuak ez badira, egindako lanen bizitza ekonomikoa murrizten ez badute, eta eragozpenik sortzen ez badute bideen, parkeen eta abarren erabiltzaileentzat. Besteak beste, honako hauek:

- Lanetan hasierako eragiketa-mekanika normala ez betetzea.
- Kontratua betetzen hiru egunetik behera atzeratzea eta etetea, zabarkeria eta arreta falta betebeharrak betetzean.
- Oro har, puntualtasun falta eta betebeharrak ez betetzea zabarkeria eta arreta falta barkagarriaren ondorioz.
- Kondizio-agiri honetan eta dagokion preskripzio teknikoan agirian ezarritako edozein betebeharrak ez betetzea, betiere kondizio-agiri honetan astuntasun handiagokotzat hartu ezean.
- Auzoan alferrikako eragozpenak sortzea.
- Lanak amaituta, sobera dauden materialak berehala ez kentzea.

Falta astuna: Falta astuntzat hartzen dira, baldin eta, ikuskapenak, eskatutako lanak, kontratuko prestazioak eta eskakizunak eskas betetzearen ondorioz, eginiko lanen bizitza ekonomikoan eragin txarra badute, erabiltzaileentzat eragozpenak eta arriskuak badakartzate eta kalte larria badakarte kontratatutako lanak kontrolatzeko edo ikuskatzeko.

- Kontratua betetzen gutxienez hiru egun eta gehienez hamabost egun atzeratzea eta etetea, puntualtasun falta errepikatuak, etengabeko zabarkeria eta arreta falta.
- Oro har, betebeharrak eta obligazioak modu larrian ez betetzea eta urtebetean hiru falta arin egitea.
- Egindako kontratuaren barruan ezagututako gaiei dagokienez behar den diskrezioa ez izatea.
- Zentroaren edo erabiltzearen ondasunetan produktu desegokiak erabiltzearen ondorioz sortutako kalteak ez konpontzea.
- Urte berean hiru ez-betetze arin egotea.
- Lanetan segurtasun- eta osasun-neurriak ez betetzea.
- Kontratutako eragiketa batzuk ez egitea.
- Giza baliabide eta baliabide material falta edo halakorik ez egotea.
- Preskripzio teknikoan agiriak baimendu eta onartu gabeko publizitatea jartzea. Makinetan eta obra-etxoetan baino ezin da kontratataren publizitaterik jarri.
- Kontratatik ez aurkeztea azpikontrastei ordaindu izanaren ziurtagiria obra-ziurtagiri guztietan, baldin eta behartuta badaude 5 milioi eurotik gorako balioko zerbitzu-kontratuaren eta azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren ehuneko 30 edo handiago bada.

Falta oso astuna: Falta oso astuntzat hartzen dira kondizioen urraketa bereziki garrantzitsua dakarten jarduketak eta kontratataren jarduketa maltzuraren ondorio direnak.

Besteak beste, honako hauek:

- Kontratatari zigorrak jarriko zaizkio adjudikazio-irizpideak ez betetzeagatik eta eskaintzan bere eginiko konpromisoren bat edo batzuk ez betetzeagatik.

- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari iruzur ekonomikoa egitea, errealtatearekin bat ez datozen ziurtagiriak eta fakturak erabiliz, eta beste edozein bide erabiliz, doloa egon beharrik gabe.
 - Kontratua betetzen hamabost egun edo gehiago atzeratzea eta etetea, eta kontratua bertan behera uztea.
 - Urtebetean hiru arau-hauste astun egitea.
 - Ageriko errendimendu falta, kontratua oker eta gaizki betetzea, hala kalitateari nola kantitateari dagokionez.
 - Kontratuaren berezko prestazioak eta kontratuaren arduradunak idatziz agindutako zereginak egiteari uko egitea, oinarririk gabe, betiere adjudikaziodunari, haren zuzendari arduradunei eta langileei zuzenean egozteko moduko jarrera bada.
 - Delitua den jokabide oro, bereziki derrigortzeak eta instalazioetan lapurtzea.
 - Kontratuaren ondoriozko eskubideak eta betebeharrak lagatzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren baimenik gabe.
 - Sekretu profesionaleko betebeharra ez betetzea.
 - Elementu eta instalazio bat narriatzen nahita uzteko jarrera.
 - Txostenetan faltsukeriak jasotzea.
 - Eskaintako exekuzio-epea eta kontratuaren xedea betetzeko bitarteko pertsonal eta material nahikoak ez edukitzea, ezta kontratuaren arduradunak eta unitate kudeatzaileak eskatutakoak ere.
 - Kontratua bertan behera uztea.
 - Agiri honetan ingurumenaren arloan ezarritako betebeharrak ez betetzea.
 - Ez-betetze astun oro errepikatzea.
 - Azpikontratistari eta hornitzaileari ordaindu ez izana epailearen edo arbitroaren ebazpen irmo bidez egiaztatzen denean. Kasu horretan, zigorra % 5era artekoa izango da, eta hileroko errepikatuko da, ordaintzen ez den bitartean, prezio horren ehuneko 50eko muga bateratura iritsi arte. Behin betiko bermea baliatuko da arrazoi horrengatik ezartzen diren zigorrak ordaintzeko.
- Zigor horiei ezaugarrien taulako M apartatuan jasotakoak gehituko zaizkie.

3.- SEEPa ez betetzea edo oker betetzea.

Baldin eta kontratistak ez baditu betetzen edo oker betetzen baditu kondizio-agiri honetan Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin lotuta ezarritako betebeharretan oinarrituta hartutako konpromisoak, jarraian zerrendatutakoak, hori ez-betetze astuntzat hartuko da:

- Europako Batzordearen, Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolen mende egotea, organo horiek kontratuari buruzko informazioa eskuratzeko duten eskubidea, eta kontratistak eta azpikontratistak informazioa emateko betebeharra.
- Etiketa berdearen eta digitalaren arloan hartutako betebeharrak betetzea.
- Kondizio-agiri honetan ezarritakoarekin bat etorritik, kontratuaren arduraduna izendatzea jarraipen-sistema egin dezan.
- Iruzuraren aurkako neurrien planean ezarritako betebeharrak betetzea.
- Informazioaren arloko betebeharrak betetzea.
- Informazioa eskuratzeko eta dokumentazioa zaintzea.
- Komunikazioaren arloko betebeharrak betetzea.

4.- Zigorren zenbatekoa.

- Atzerapena: Kontratua gauzatzen hasteko atzeratutako edo kontratu-exekuzioa etenda egoniko egun bakoitzeko, agiri honetako 28.2 artikuluan ezarritako zigorra jarriko da, betiere ezaugarrien taulako M apartatuan bestelakorik ezartzen ez bada.

Gainera, honako zigor hauek ezarriko dira:

- Faltza arinak: Kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 1etik % 3ra arteko zenbatekoarekin zigortuko da falta arin bakoitza.

- Falta astunak: Kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3,01etik % 5era arteko zenbatekoarekin zigortuko da falta astun bakoitza.

- Falta oso astunak: Kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 5,01etik % 10era arteko zenbatekoarekin zigortuko da falta oso astun bakoitza.

Betebeharrak ez betetzeko ezinbeste edo kausa justifikatu gisa ezin izango dira alegatu honako hauek:

a) Ohiz kanpokoak ez den eta eragin katastrofikorik ez duen eguraldi txarra.

b) Enpresa adjudikaziodunaren barneko lan-eteteak.

c) Enpresako langileen edo hirugarrenen oporraldia edo laneko bajak.

Adjudikaziodunak hitzartutakoa bete ezean, eragindako kaltea konpondu beharko du, ez-betetzeak dakarren erantzukizuna eskatzea alde batera utzi gabe.

Zigorren zenbatekoak ordainduko dira dagokion zenbatekoa ordainketetatik edo, hala badagokio, fidantzatik kenduz.

Zigorrek ezartzeak ez du baztertzeko administrazioari arau-haustearen ondorioz beharbada eman beharreko kalte-ordaina ematea.

26. SUNTSIARAZTEKO ARRAZOIAK. -

1) SPKlan ezarritako kausa orokorrekin gain, hauek dira kontratua suntsiarazteko kausak:

a) Atzera egitea zerbitzua ematen hasi aurretik edo, kontratazio-organoari lepora dakizkiokkeen arrazoiengatik, kontratuaren hasiera lau hilabete baino gehiago atzeratzea, kontratuan bertan horretarako adierazitako hasiera-egunetik zenbatzen hasita, betiere kondizio-agirian epe txikiagorik adierazita ez badago.

b) Atzera egitea zerbitzua ematen hasi ostean, eta, kontratazio-organoaren erabakiz, kontratua zortzi hilabeteko epea baino gehiago etetea, betiere kondizio-agirian epe txikiagorik adierazten ez bada.

c) Kontratu osagarriak suntsitu egingo dira, betiere, kontratu nagusia suntsiarazten denean.

2) Suntsiarazpen horren ondorioak SPKLaren 213. eta 313. artikuluetan ezarritakoak izango dira.

3) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planarekin lotuta kontratua suntsiarazteko kausak:

a) Helburuak eta mugariak ez betetzea.

b) BBUpeko iruzurraren aurkako neurrien planean ezarritako betebeharrak betetzea.

c) Kontratistak eta, hala badagokio, azpikontratistek interes-gatazkarik ezaren adierazpena ez aurkeztea.

d) Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren zeharkako printzipio aplikagarriak behin eta berriz ez betetzea.

IV. KAPITULUA: AZKEN XEDAPENAK

27. ORDAINTZEKO MODUA

1) Ordainketa egingo da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontratua egin izana egiaztatzen duen faktura edo dokumentua onartu eta hurrengo 30 egun naturaleko epearen barruan, betiere kontratuarekin ados badago eta zerbitzua bete bada.

Aurkeztutako fakturak eskatutako betekizunen bat falta duela ikusiz gero, faktura zuzentzeko eskatuko da, eta ordaintzeko epea ez da zenbatzen hasiko harik eta zuzentzen den arte.

Kontu-hartzailletza da Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan kontabilitate publikoaren arloko eskumenez arduratzen den administrazio-organoa.

Prezioa ordainduko da **hileko banku-transferentzia eginez**, indarreko araudiaren arabera egindako fakturaren kontra, zeina, hala badagokio, kontratuaren ordezkari izendatutakoak behar bezala adostuta egongo den. Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak fakturen zenbatekoa ordaindu beharko du uztailaren 5eko 15/2010 Legean ezarritakoaren arabera.

Adjudikazioduna behartuta dago aurreko hilean gauzatutako lanei dagokien faktura hil bakoitzaren lehen hamar egunetan aurkezteko. Fakturak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari igorri behar zaizkio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren web-orriko Hornitzailearen Atariak sarrera-puntu nagusiaren bidez. Hornitzailearen Atariak, zenbait aukeraren artean, fakturak erregistratzea ahalbidetzen die behar bezala baimendutako pertsonen.

https://www.consorciodeaguas.com/Web/CertificadoDigital/portal_proveedor.aspx

Transferentzia hartzen duen kontu korrontearen aldaketa guztiak Hornitzailearen Atariaren bidez izapidetu beharko dira.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Kontu-hartzailletza izango da kontabilitatearen arloko organo eskuduna.

Partzuergoko kontu-hartzailletza izango da fakturaren hartzailea, eta fakturan kontratazio-espedientearen zenbakia eta kontratuaren arduradunaren edo zuzendariaren izena jasoko dira.

Kontratistak hirugarren bati laga ahalko dio, lege ezarritako edozein bitarteko erabiliz, kontratuaren prezioa kobratzeko eskubidea, baina lagapen horrek ondorioak izan ditzan, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak lagapen-hartzailearen aldeko ordaintze-manamendua egin dezan, beharrezkoa da azken horri lagapen-akordioa zinez jakinaraztea (200. art., 2014/23/EU eta 2014/24/EU Europako Zuzentarauak eta Kontseiluarenak).

Era berean, azpikontratazioa egonez gero, lizitatzaila arduratuko da kontratuaren xedearen zati bat azpikontratatzeko pertsona fisikoek edo juridikoek ere badiuztela egunean gizarte-segurantzarekiko zorrak, eta berau egiaztatzen duen ziurtagiria erantsiko du.

2) Epe hori bukatuta, ez bada jaso dagokion zorraren zenbatekoa, idatziz eskatu ahalko zaio kontratazio-organoari hura jasotzeko, berandutze-interesak barne, SPKLaren 198. artikuluan araututakoa beteko da xede horretarako.

3)

- a) Erregulazio harmonizatuko kontratuetan eta gutxienez 2 milioi euroko balio zenbatetsia duten kontratuetan, baldin eta azpikontratistak edo hornitzaileak, egoitza judizialean edo arbitralean, kontratista nagusiaren kontrako ekintzak abiatzen baditu, ordaintzeko epea amaituta fakturak ordain ditzan, kontratazio-organoak behin betiko bermea behin-behinean atxikiko du, harik eta epailearen edo arbitroaren ebazpen irmoan deklaraturiko eskubideak ordaindu izana kontratistak egiaztatzen duen arte.
- b) Kontratuen balio zenbatetsia 5 milioi eurotik gorakoa bada eta azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuaren prezioaren ehuneko 30etik

gorakoa bada, kontratistak kontratuko azpikontratistei eginiko ordainketen ziurtagiria aurkeztu beharko du obra-ziurtagiri bakoitzean.

28. EXEKUZIO-KONDIZIO BEREZIAK.

Hala kontratistak nola azpikontrastek ezaugarrien taulako L) apartatuan zehaztutako exekuzio-kondizio bereziak bete beharko dituzte, eta nolanahi ere, honako hauek:

- Adjudikaziodunak erakunde publiko kontratatzaileari, eskatzen duenean, kontratuan parte hartzen duten azpikontrastisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza bidaliko dio haiek parte hartzeko kontratua gauzatzen denean, eta horrekin batera baita haietako bakoitzaren azpikontratazio- edo hornidura-kondizioak ere, betiere ordaintzeko epearekin zerikusi zuzena badute.
- Erakunde publiko kontratatzaileak eskatuta, azpikontrastistei eta hornitzaileei ordainketak bete izanaren frogagiria aurkeztu beharko dute, prestazioa ordaintzeko epeen barruan bukatu ostean.

Horiek ez betetzeak ekarriko du zigorrak ezartzeko espedientea hastea; zigorrak, proportzionaltasunari jarraikiz, kontratuaren prezioaren % 10etik % 50era bitartekoak izango dira, eta gerta liteke kontratua suntsiaraztea ekartzea ere bai.

29. LAN- ETA GIZARTE-BETEBEHARRAK, EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUN ERAGINGARRIRAKO BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-BABESERAKO BETEBEHARRAK.

a) Lan- eta gizarte-betebeharrak.

- Kontratistak nahitaez bete beharko du lan arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dagoen araudia. Kontratistak betebeharrak horiek ez betetzea ez dio inolako erantzukizunik ekarriko Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari.
- Adjudikaziodunaren konturako langile guztiak behar bezalako lan-kontratuak babestuta egongo dira. Langile horiek ez dute lan-harremanik izango Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin, adjudikaziodunaren mende baitaude soil-soilik. Adjudikaziodunak nagusi gisa datxezkion eskubide eta betebeharrak guztiak izango ditu langile horiei dagokienez, lan arloko legeriari jarraikiz, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ez du inolako erantzukizunik izango adjudikaziodunaren eta langileen artean sortutako betebeharratan, nahiz eta kaleratzeak edo hartutako bestelako neurriak kontratu hau betetzearen, ez betetzearen, deuseztatzearen eta interpretatzearen zuzeneko edo zeharkako ondorioa diren. Halaber, adjudikaziodunak gizarte-segurantzaren alta eman behar die zerbitzuak jardueran betetzen dituzten langile guztiei, eta dagokion lan-mutualitatearekin elkartzeko agiria sinatu behar du, laneko istripu-arriskuak estaltzeko; horrez gain, arloko legeriak xedatzen duen guztia zehatz-mehatz bete behar du, bai eta laneko segurtasunari, osasunari eta laneko arriskuen prebentzioari buruzko araudia ere.
- Ez da lan-loturarik egongo adjudikaziodunak kontratua exekutatzen zuzendutako langileen eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren artean. Hortaz, langileak berariaz egongo dira adjudikaziodunaren agindupean, bai zuzendaritzari eta bai antolaketari dagokionez, legez ezarritako arlo eta ordena guztietan, eta, horrenbestez, adjudikazioduna izango da erantzule bakarra eta behartuta egongo da kasuari ezargarri zaizkion legezko xedapen guztiak betetzera, batez ere kontratazioari, Gizarte Segurantzari, laneko segurtasunari eta osasunari buruzkoak; hala bada, aipatutako langileek ez dute inolako loturarik izango ez juridikorik, ez lan-arlokorik Partzuergoarekin, kontratuaren arabera egokiak diren eta legeak eta kontratuak agintzen dituzten kontrolatzeko eta ikuskatzeko gaitasunak alde batera utzita.

- Adjudikaziodunaren erantzukizuna da betetzea eta bere langile guztiei betearaztea Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuak ezarritako arauak eta lanerako prozedura operatiboak.
- Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak adjudikaziodunari eskatu ahalko dio alta-agirien, baja-agirien eta Gizarte Segurantzako aldaketa guztien kopia emateko adjudikatutako lanetara zuzendutako langile guztiei dagokienez, bai eta Gizarte Segurantzari eginiko kuoten likidazioen kopia ere (TC1 eta TC2 ereduak, eta etorkizunean haiek ordeztu dituztenak). Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskatzen duenean, kontratistak haren eskura jarri beharko du enpresako langileen kontratuei buruzko behar den informazio guztia, kontratu hau exekutatzen bideratuta daudenei dagokienez. Gertatzen den aldaketa oro aurrez eta froga bidez jakinarazi beharko zaio unitate kudeatzaileari. Ez dago baimenik kontratua exekutatzen zuzendutako langileen kopurua aldatzeko edo lan-kualifikazio bera ez duten langileez ordeztzeko. Adjudikaziodunak horretarako egiten duen jakinarazpenean, honako hauek jasoko dira: kategoria profesionala, kontratu mota, antzintasuna, asteko lan-ordu kopurua eta eguneko ordutegia, bai ordeztu nahi dituzten pertsonen, bai sartuko diren pertsonen dagokienez.
- Adjudikaziodunak nahitaez bete beharko du, kontratuaren indarraldian, langileen ehuneko bik gutxienez (% 2) minusbaliotasunen bat izateko betebeharra, edo horren ordeztu baimendu eta deklaraturako neurriak hartu beharko ditu adjudikaziodunak, lizitazioaren unean aurkeztutako dokumentazioarekin bat etorriz, horretarako betebeharra baitu, bat etorriz otsailaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizartratzeari buruzko Lege Orokorren testu bategina onartzekoaren, 42.1 artikuluekin, eta administrazio honek kontratu-exekuzioari buruz behar diren agiriak eskatu ahalko ditu haren exekuzioa benetan egiaztatzeko.
- Betebeharra izango du, halaber, indarrean dagoen gizarteren arloko eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko legeria zehatz-mehatz betetzeko, eta haren kontura joango dira era guztietako aseguru sozialak, sorospenak, kalte-ordainak, ordainketak eta, orokorrean, lan arloko beste edozein betebehara.
- SUBROGAZIOA: Baldin eta, legezko arau batek, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak eta negoziatio kolektiboko arau orokor batek xedatuta, langileak nahitaez subrogatu beharra badago, ezaugarrien taulako P) apartatuan adieraziko da. Halakoetan, aplikatu egin beharko da SPKLaren 130. artikuluan ezarritakoa, eta adjudikazioduna enplegatzaile gisa subrogatu beharko da lan-kontratuetan; haien kondizioak espediente honen dokumentazio osagarrian jasota daude. Lizitazio honekin batera aurkeztutako datuak informatzeko xedez aurkeztu dira, eta gaur egun zerbitzua ematen duen enpresak eman ditu, baina Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak ez du erantzukizunik haien zehaztasunaren, osotasunaren eta egiazkotasunaren gainean, hori guztia haiek ematen dituen enpresan sorturiko ondorio juridikoak hargatik eragotzi gabe.

b) Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko neurriak.

1) Adjudikaziodunak emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriko berdintasun-plan bat egiteko eta aplikatzeko betebeharra beteko du, agiri honetako 14. klausulako 2. puntuko g) apartatuan aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztean bere gain hartzen duen bezala, baldin eta enpresa egoera hauetakoren batean badago:

- 250 langile baino gehiago edukitzea.
- Hitzarmen kolektibo aplikagarriak hala ezartzen duenean.
- Lan-agintaritzak zehapen-prozedura batean zehapena ordeztu duen neurri gisa erabaki duenean.

2) Kontratu-exekuzioko kondizioen ezaugarriak, aintzat hartuta kontratu honen izaera eta prestazioak sortzen diren jarduera-sektorea zein diren, jarraian zehaztutakoak dira:

- Kontratuaren xedea egiten parte hartzen dutenetatik % 25 gutxienez emakumeak izatea, eta behar baino ordezkaritza txikiagoa izan duten lanpostu, lanbide eta karguetan egotea; hau da, haien kontratazioa ez da mugatuko tipikoki feminizatuta dauden postuak betetzera.

c) Ingurumenaren arloko betebeharrak:

Kontratatistak indarrean dauden xedapenak bete behar ditu nahitaez ingurumen-babesaren arloan, indarrean dauden arauetan eta kontratazio hau arautzen duten kondizio-agirian zehaztutakoarekin bat. Kontratazio-organoak Baldintza Teknikoen Pleguan adierazi ahalko du aipatutako betebeharrerai buruzko informazioa zer organismotan eskuratu dezaketen lizitatzailleek. Gainera, obrak exekutatzeke lan guztiek honako irizpide hauek errespetatu behar dituzte:

- Lanak exekutatzeke behar den ur-kontsumoa minimizatzeko eta ura berriz erabiltzeko neurriak ezarriko dira.
- Behar diren neurriak hartuko dira bizilagunei eta langileei eragozteko moduko zaratak eta bibrazioak ahalik eta txikiak izan daitezen; hori horrela, halako eragozpenak dakartzaten lanak herritarren atsedenerako ordutegiekin bateragarriak diren orduetan egingo dira, betiere zaratari buruzko berariazko araudia errespetatuta.
- Sortutako hondakinak indarrean dagoen araudiak ezarritakoari jarraikiz tratatu beharko dira.
- Kutsatzea eragotziko da, eta horren barnean sartuko da ingurumen atmosferikoa, natur baliabideak (ur-ibilguak, baso-masak eta abar) eta kontratu-exekuzioaren ondorioz kalterik izan lezakeen beste edozein ondasun; ildo horretan, zuzendaritzak kutsadura eragozteko emandako aginduak beteko dituzte.
- Ingurumenaren arlokoa ez betetzeak oso astuntzat jotako zigorrak ezartzea ekarriko du.

d) Ingurumenari-kalte esanguratsurik ez eragitea (DNHS, ingelesezko siglak: Do Not Significant Harm) deritzon printzipioa aplikatzea

Enpresa kontratatistak eta azpikontratatistek etiketa berdearen eta digitalaren arloko konpromisoak betetzeko betebeharra izango dute; horrez gain, ingurumenari-kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa aplikatu beharko dute (Do Not Significant Harm, DNSH), eta ildo horretan, DNSH printzipioa aplikatuta hartzen diren betebeharrak betetzeko konpromisoa barne hartzen duen dokumentua aurkeztu beharra izango dute, kontratu-prestazioaren hasieran erantsitako ereduaren arabera (XI. eranskina).

Entitate deitzaileak alderdi horiek bete izana egiaztatzeke, kontratatistak/azpikontratatistak, kontratu-prestazioa bukatutakoan, epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko du DNSH printzipioa aplikatzean hartutako betebeharra benetan bete izanaren egiaztatzea. Horretarako, beste eranskin bat aurkeztuko du, kontratazio-organoaren jarraibideak beteta, hala eskatuz gero.

Halaber, egoki iritzitako jarraipen-txostenak aurkeztu beharko ditu, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia

Planaren osagaietako neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta neurrian aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko).

e) Etiketatzeko berdea eta etiketatze digitala

Etiketatzeko berdea eta etiketatze digitala trantsizio ekologikorako eta digitalerako aurreikusitako baliabideen garrantzi erlatiboa aitortzea da. Baliabide horiek, hurrenez hurren, SEEParen zuzkidura osoaren % 39,7 eta % 28,2 izan behar dute maila agregatuan. Deialdi bakoitzaren xede diren jarduketek helburu horiei zer ekarpen (%) egiten dieten adieraziko dute deialdi guztiek.

Jarduketek SEEPeko inbertsioetan esku hartutako eremuak, barne hartuta 5. osagaikoak (Itsasertza eta ur-baliabideak zaintzea), jasota daude BATZORDEAREN ZERBITZUEN LAN-DOKUMENTUAREN eranskinean (Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren azterketa), zeina erantsi baitzaio Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari; kontratistak/azpikontratistak dokumentu hori ezagutzen duela adierazi du.

Entitate deitzaileak egiazta dezan etiketatze horiek bete direla, kontratistak/azpikontratistak epearen barruan eta behar bezala aurkeztu beharko ditugoki iritzitako jarraipen-txostenak, zeinak honako honetan jasota dauden: HFP/1030/2021 Agindua (irailaren 29koa, SEEP kudeatzeko sistema eratzen duena) eta HFP/1031/2021 Agindua (irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta neurrian aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaren jarraipena egiteko).

Klausula honetan azaldutako betebeharrak kontratuaren funtsezko kondizioak dira, eta haiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar lezake.

f) Datuen babesa

Adjudikaziodunak datuak babesteari buruz indarrean dagoen araudia bete beharko du.

Sektore publikoko erakundeek kontratistari datuak lagatzea dakarten kontratuetan, haren exekuzioaren kondizio berezi gisa, kontratistak nahitaez bete beharko du autonomiako, Estatuko eta Europar Batasuneko datu-babesaren arloko araudia; betebeharrak hori funtsezko kontratu-betebeharra izango da.

Datu-babesaren arloan indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraikiz, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa da datuak tratatzeko arduraduna (aurrerantzean, arduraduna).

Arduradunak zilegitasuna izango du lizitatzailerik lizitazio honetan parte hartzeagatik emandako datuak tratatzeko, honako xede hauetarako:

- a) Lizitatzailerik lizitazioko partaidetza kudeatzea. Lizitatzailerik hautagaitza aurkezteko unean baliozki emandako adostasunak legitimatzen du tratamendua.
- b) Adjudikaziodunaren datuak erabiliko dira alderdien artean sortutako harreman juridikoa kontrolatzeko eta exekutatzeko. Tratamendua legitimatuta dago kontratuaren zerbitzu-prestazioa zuzentzen duen kontratu-exekuzioari jarraikiz.

- c) Lizitatzailleen eta adjudikaziodunen datuak argitaratzea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak egoki iritzitako bitartekoak erabiliz, bereziki web-orri korporatiboaren bidez, zeinak, besteak beste, kontratazioei eta hornitzaileei buruzko informazioa jasotzen duen. SPKLak xede hori baimentzen du.

Datu pertsonalak tratatu eta gordeko dira harremanak iraun bitartean bakarrik, baita amaituta ere arduradunak tratatzeko eta/edo kontserbatzeko zilegitasuna duen bitartean, indarrean dagoen legerian ezarritako epeak aintzat hartuta.

Tratatzeko bildutako datu pertsonalei dagokienez, haiek zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko eskubideak erabil ditzakete lizitatzailleek. Halaber, egoera jakin batzuetan, lizitatzailleek beren datuen tratamendua mugatzeko eskatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea izango dute. Kasu horretan, arduradunak datuak tratatzeari utziko dio eta erreklamazioak egiteko edo horien aurrean defendatzeko bakarrik gordeko ditu.

Eskubide horiek erabili ahalko dituzte arduradunari idatziz zuzendutako eskaera eginez, ezaugarrien taulan zehaztutako harremanetarako datuak erabilita, betiere indarrean dagoen legeriak xedatutakoari jarraikiz. Era berean, erreklamazioak edonoiz bidali ahalko zaizkio arduradunari edo Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, erakundeak horretarako prestatuak dituen inprimakien bidez; inprimakiok web-orri honetan daude eskuragarri: www.avpd.euskadi.eus.

Baldin eta, zerbitzua emateko, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren ardurapeko datu pertsonalak eskuratu behar badira, adjudikazioduna tratamendu-eragilea izango da datu-babesari buruzko araudiaren ondorioetarako. Kasu horretan, tratamenduaren kondizioak arautzeko kontratua formalizatu beharko da, honako alderdi hauek gutxienez barne hartuta:

- a) Datuak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak emandako jarraibide dokumentatuen arabera bakar-bakarrik tratatzeko konpromisoa; hala bada, adjudikaziodunaren iritziz datu-babesari buruzko araudia urratzen duen edozer jakinarazi beharko dio Partzuergoari. Partzuergoaren jarraibideak hartu beharko dira kontuan, halaber, tratamenduaren azpieragileei eta nazioarteko datu-transferentziei dagokienez; azken horiek aurrez baimendu beharko ditu Partzuergoak.
- b) Baldin eta adjudikaziodunak tratamenduaren xedeak eta bitarteak zehazten baditu, arduraduntzat hartuko da, eta datu-babesari buruzko araudian ezarritako legezko erantzukizunen mende egongo da.
- c) Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 32. artikuluan, arriskuaren araberako segurtasun-maila bermatzeko teknikaren eta antolamenduaren arloko neurri egokiak aplikatzeko eta eguneratzeko konpromisoari buruzkoan, xedatutakoa betetzeko, hori guztia kontuan hartuta teknikaren egoera, aplikazio-kostuak, eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak. Kontuan hartuko dira, halaber, pertsona fisikoen eskubideetarako eta askatasunetarako probabilitate eta larritasun aldakorreko arriskuak.
- d) Partzuergoaren esku behar den informazio guztia jartzea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (aurrerantzean, DBEO), baita dagokion Lege Organikoan ere, ezarritako betebeharrak betetzen direla frogatzeko. Ildo horretatik, konpromisoa eta betebeharra hartzen du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak edo beste auditore baimendu batek auditoriak, ikuskapenak barne, egin ditzan onartu eta lagunduko duela.
- e) Baldin eta, kondizio-agiriko tratamendu-eragiketak egiteko, beharrezkoa bada DBEOaren 35. artikuluko inpaktu-ebaluazioa egitea, adjudikaziodunak

Partzuergoari laguntzeko konpromisoa hartzea inpaktu-ebaluazioak eta aurretiko kontsulta egiten eta mantentzen.

- f) Bere kargura dituen datu pertsonalen segurtasunaren urraketak, gorabehera dokumentatzeko eta jakinarazteko informazio garrantzitsu guztiarekin batera, Partzuergoari, bidegabeko atzerapenik gabe, jakinarazteko betebeharra.
- g) Tratamendu-jardueren erregistroa mantentzea, DBEOaren 30.5 artikuluan ezarritako salbuespena aplikatzekoa bada izan ezik.
- h) Partzuergoak aukeran du, zerbitzu-prestazioa betetakoa, adjudikaziodunak betebeharrak hauetako bat izatea:
 - a. Datu pertsonal guztiak eta dauden kopiak ezabatzea, betiere lege-arauren batek haiek atxiki beharra dagoela xedatzen ez badu, hala bada ez baitira datu pertsonalak ezabatuko.
 - b. Datu pertsonal guztiak itzultzea tratamendu-zerbitzuen prestazioa bukatuta, eta egindako kopia guztiak ezabatzea.

Alde batera utzi gabe Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 28.2 artikuluan ezarritakoa (Erregelamendu hori datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du), kondizio-agiriaren karatulan honako hau ere jasoko da:

a) Datu horiek zer xedez lagako diren.

b) Etorkizuneko kontratistak edozelan ere Estatuko eta Europar Batasuneko datuen babesaren arloko araudia nahitaez bete behar duela, 202. artikuluko 1. apartatuaren azken paragrafoan ezarritakoa alde batera utzi gabe.

c) Enpresa adjudikaziodunak, kontratua formalizatu aurretik, zerbitzariak non egongo diren eta horiekin lotutako zerbitzuak nondik emango diren azalduko duen adierazpen bat nahitaez aurkeztu behar duela.

d) Aurreko c) letran aipatutako adierazpenean emandako informazioan kontratuaren bizitzan zehar gertatutako edozein aldaketaren berri nahitaez eman behar duela.

e) Lizitatzailerek beren eskaintzan nahitaez adierazi behar dutela zerbitzariak edo horrekin lotutako zerbitzuak azpikontratatzeko asmorik daukaten, eta, hala, eginkizun hori aginduko dieten azpikontratisten enpresa-izena edo profila (kaudimen profesional edo teknikoko kondizioen erreferentziak zehaztua).

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratuei dagozkien kondizio-agirietan, a) letratik e) letrara artekoetan jasotako betebeharrak funtsezkotzat joko dira 211. artikuluko 1. apartatuaren f) letran ezarritakoaren ondorioetarako.

g) Jabetza intelektual eta industrial

Partzuergoa izena eta haren logotipoa zeinu bereizgarriak dira, Espainiako Patente eta Marka Bulegoan erregistratuak, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa da haien titularra. Lizitazio honetan parte hartzeak eta haren balizko adjudikazioak ez dute aurretik esandako marka erabiltzeko eskubiderik ematen.

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak titulartasun eskusiboa izango du kondizio-agiri honen xede diren emaitzen gainean, bai eta kontratua exekutatuz sortzen diren jabetza industrial eta intelektualako eskubide guztien gainean ere, barne hartuta, halakorik badago, haren indarraldian sorturiko eguneratzeak, aldaketak, agiriak, eskuliburuak eta abar.

Jabetza intelektualaren babespeko obrei dagokienez, adjudikaziodunak obren gaineko eskubide guztiak eskusiban laga beharko ditu, barne hartuta erreproduzitu, banatu, jendaurrean jakinarazi eta eraldatzeko eskubideak, inolako mugarik gabe, kontratua sinatzeko unean ezagutzen diren esplotazio-modalitate guztietarako, legez ahal den eperik luzeenean eta mundu osorako efikaziarekin, ordain ekonomiko gehigarriko eskubiderik ez dagoela. Obrak programa informatikoak badira, adjudikaziodunak sorturiko softwarearen iturburu-kodea aurkeztu beharko du prestazioa bukatutakoan, edo alderdietako batek kontratua eteten duenean, halakorik gertatuz gero.

Jabetza industrialeko eskubideei dagokienez, titulartasuna eskusiboa ere bada, eta barne hartuko du arlo guztietan esplotatzeko eta industria-jabetzako bulegoetan erregistratzeko aukera; mundu osoan eta legez ahal den eperik luzeenean.

Adjudikazioduna kontratua exekutzeko behar diren esplotazio-eskubideen titularra eta jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen titularra izango da, edo eskubideak dituenaren baimena izango du, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak kontratuaren indarraldi osoan izango du hala dela egiaztatzeak aukera. Hori horrela, adjudikaziodunak Partzuergoa hirugarrenen aurreko era guztietako erantzukizunetik salbuetsiko du kondizio-bjagiri honen xede den kontratua exekutzeko erabilitako hornidura, material, prozedura eta bitartekoen ondorioz aurkeztutako erreklamazioengatik, haien gaineko jabetza intelektual eta industrialeko eskubideen titularren aldetik.

Klausula honetan azaldutako betebeharrak kontratuaren funtsezko kondizioak dira, eta haiek ez betetzeak kontratua suntsiaraztea ekar lezake.

h) SEEPari buruzko informazio-betebeharrak

Adjudikaziodunak eta azpikontratistek aurkeztu beharko dute, kontratua formalizatu aurretik, HFP/1030/2021 Aginduan ezarritakoan oinarritutako erantzukizunpeko adierazpena, honako informazio hau barne hartuta:

- a) IFZ.
- b) Izena edo sozietate-izena.
- c) Egoitza fiskala.
- d) Deialdian inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzea, Europako araudi aplikagarrian ezarritakoa betetzeko eta bat etorri Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin, XI. eranskineko ereduaren arabera.
- e) SEEPean ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote (XII. eranskina).
- f) Funtsen azken onuradunaren benetako titularrari buruzko informazioa (azken baten bezeroaren jabetza edo kontrola duen edo duten pertsona fisikoa edo pertsona fisikoak, zeinen kontura transakzio edo jardura bat egiten den): funtsen hartzailearen izena, hala badagokio, jaiotze-data, laguntzen kontzeptuan edo kontratista eta azpikontratista gisa.

i) Informazioa eskuratzea eta zaintzea

Europako Batzordearen, Iruzuraren aurkako Borrokarako Bulegoaren, Europako Kontuen Auzitegiaren eta Europako Fiskaltzaren kontrolen mende dago kontratu hau.

Organo horiek kontratuaren informazioa eskuratzeko eskubidea dute, eta kontratistak eta azpikontratistak informazioa emateko betebeharra dute, horrenbestez.

Halaber, dokumentazioa zaintzeari buruzko arauak bete behar dira, Europar Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikatu beharreko finantza-arauei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduko 132. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratistak eta/edo azpikontratistak betebeharrak horiek bete ezean, kontratazio-organoak kondizio-agiri honetan jasota dauden dagozkion zigorrak ezarriko ditu.

j) Komunikazioaren arloko betebeharrak

Kontratistak eta azpikontratistak irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluan ageri diren konpromisoak nahitaez bete behar dituzte, komunikazioari, goiburukoei eta logoei dagokienez. Honako hauetan zehazten dira:

- Planaren exekuzioarekin lotutako komunikazio-jarduketek Espainiako Erresumako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren logo ofiziala edukiko dute, agintari arduradunak jakinarazitakoari jarraikiz. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren funtsen bidez finantzaturiko espedienteekin lotutako dokumentazio guztian jaso beharreko logoak eta enblema hemen daude eskuragarri: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>
- Beste logotiporen batekin batera erakutsiz gero, Europar Batasunaren enblema gutxienez gainerako logoak bezain modu nabarmenean eta ikusgarrian erakutsi behar da. Enblema desberdin eta bereizita egon beharko da, eta ezin da aldatu bestelako ikus-marka, marka edo testuak gehituz. Enblemaz gain, ezin izango da bestelako ikus-nortasun edo logotiporik EBren babesa nabarmentzeko.
- Estatu kideak SEMarekin lotuta eginiko komunikazio- edo hedapen-jarduera orok, edozein dela haren modua eta bitartekoa, informazio fidagarria erabili beharko du.

Kontratistak eta/edo azpikontratistak betebeharrak horiek bete ezean, kontratazio-organoak kondizio-agiri honetan jasota dauden dagozkion zigorrak ezarriko ditu.

k) Administrazio Kontratatzaileak onetsitako iruzurraren aurkako neurrien plana betetzeari buruzko betebeharrak.

Kontratistak/azpikontratistak nahitaez egin behar du bat BBUPen eta entitate deitzailearen iruzurraren aurkako neurrien planarekin, bere jarduketa-esparruaren barruan. Kondizio-agiri honetako ezaugarrien taularen R) apartatuan dago planaren esteka.

Kontratistak/azpikontratistak lagundu egingo du BBUPeko SEEParen informazio-, kudeaketa- eta kontrol-sistemekin lotutako iruzurraren aurkako neurrien plana betetzen. Planaren aurkako ekintza orok espedientea hastea ekarriko du, eta, hala badagokio, haren berri emango zaio Estatuko Administrazioko Esku-hartzailetza Nagusiaren Iruzurraren Aurkako Koordinaziorako Zerbitzu Nazionalari, bitarteko elektronikoak erabiliz, zerbitzu horrek bere webgunean jarritako kanalaren bitartez, eta Zerbitzu horren apirilaren 3ko 1/2017 Komunikazioan ezarritakoari jarraikiz.

BBUPen iritziz balio etikoak eta jokabide-arauak sartu beharra dago, bai eta kudeaketa onaren printzipioak eta jarduketa profesionaleko arauak ere, kontratazio publikoaren arloko jarduketetan gailendu behar baitira.

Hori guztia Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauaren 16. kontuan hartuzkoan ezarritakoari jarraikiz, zeinak botere publikoak ahal diren bitarteko guztiak erabiltzera behartzen baititu kontratazio publikoaren prozeduretan interes-gatazken eraginik egotea eragozteko. Eta bereziki adierazten du horrek «balitekeela ekartzea interes-gatazkek antzeman, eragotzi eta ebazteko prozedurak erabiltzea».

Kode hori, funtsezko betebeharrak gisa, nahitaez bete behar dute Partzuergoek sustatutako lizitazioetan parte hartzen duten enpresek eta entitateek eta haien adjudikaziodunek. Hura bete ezean, kontratazio-organoak haren aurkako jarduketara egin duen enpresa edo entitatea baztertuko du edo, hala badagokio, kontratua suntsiaraziko du erruzko ez-betetzeagatik, horretarako lege ezarritako ondorioekin.

l) Finantzaketa bikoitzik eza

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren (SEMaren Erregelamendua), Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzekoaren, 22. artikulua xedatzen du estatu kideek, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren (SEM) esparruko funtsen onuradun edo emaille diren aldetik, Batasunaren finantza-interesak babesteko neurri egoki guztiak nahitaez hartu behar dituztela, eta haien artean, kontrol-sistemak ezartzea honako hau behar den bezala bermatzeko: funtsak aplikatu beharreko arau guztiak, bereziki finantzaketa bikoitzari buruzkoak, betez kudeatu izana.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 Erregelamenduaren (EB, Euratom) (EBren Finantza Erregelamendua) 130. kontu hartuzkoa eta 191.3 artikulua aintzat hartuta, gastu berak ezin izango dira bi aldiz finantzatu Europar Batasunaren aurrekontuarekin.

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP) exekutatzean betebeharrak benetan bete daitezten, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduak, SEEPa kudeatzeko sistema eratzeak, 7. artikuluan adierazten du SEEParen exekuzioan parte hartzen duten entitateek prozedurak aplikatu behar dituztela finantzaketa bikoitzik ez dagoela bermatzeko. Era berean, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 13. artikuluekin bat etorritik, organo arduradun eta kudeatzaileek kudeaketa-txostena egingo dute ezarritako maiztasunarekin, eta txosten horretan adierazi dute aplikatu beharreko printzipioak bete dituztela, eta haien artean, funtsak aplikatu beharreko arauak, bestek beste, finantzaketa bikoitzari buruzkoak, betez kudeatu dituztela.

Hartarako, kontratistak erantzukizunpeko adierazpena (XIII. eranskina) behar bezala beteta aurkeztuko du.

m) Publizitatearen eta hedapenaren arloko betebeharrak

Komunikazioa eta ikusgaitasuna alderdi garrantzitsuak dira EBk bultzatu eta finantzaturiko programa guztietan; EBk lortu nahi du, izan ere, kide izateko sentipena sortzea Europako herritarren artean, eta ezagut dezaten EBk zer lan egiten duen bizikaltatea, ekonomia- eta ingurumen-jasangarritasuna eta etorkizuna hobetzeko.

Jarduketan publizitate- eta hedapen-ekintzek SEEParen logoa eta Europar Batasunaren enblema edukiko dituzte, baita testu hau ere: «Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU», sarbide-esteka honetan ezarritako ikus-nortasuneko ezaugarriak jarraikiz: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>

Adjudikaziodunaren betebeharra izango da A4 edo A5 neurriko kartela ipintzea proiektu finantzatuaren ageriko tokian, honako enblema hauekin: Europar Batasunaren enblema + Europar Batasunak finantzatua - Next Generation EU, dagokion Ministerio kudeatzailearen enblema, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren enblema, eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren enblema.

Proiektua amaituta, neurri adierazgarriko kartela edo plaka jarri beharko dute. Eragiketa bukatu eta hiru hilabeteko epean ezarri beharko da, eta 4 urte egongo da gutxienez. Kartel guztiak ikusteko modukoak izango dira, jarduketaren neurriaren edo garrantziaren arabera.

Kartelaren gutxieneko informazio-edukia

- Onuradunaren izena.
- Eragiketaren izena.
- Eragiketaren helburua.
- Eragiketa hasteko eta bukatzeko data.
- Diruz laguntzeko moduko gastu oso esleituia.
- Funtsen kontura jasotako finantzaketa.
- Proiektu osoaren Europako kofinantzaketa-ehunekoa.
- Kokapena.
- Europar Batasunaren enblema, EBren eta elkarrekin finantzatzen duen funtsaren jatorriarena.
- Ministerio kudeatzailearen enblema.
- Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren enblema.

SEEParen Marka Eskuliburuak zehazten duen bezala, Gotham da komunikazio-, publizitate- eta hedapen-jarduketetarako tipografia nagusia, haren light, medium, bold eta black bertsioetan. Salbuespenez, Gotham tipografia erabiltzerik ez badago, Helvetica iturria erabiliko da lehen aukera gisa, haren light, regular eta bold bertsioetan.

Era guztietako materialak erabil daitezke aldi baterako kartelak egiteko, betiere eguraldi txarraren ondorioak jasateko modukoak badira, eta jarduketa-exekuzioak dirauen denbora osoan haren edukia irakurtzea bermatuz gero. Plaka iraunkorrei dagokienez, gomendagarria da kromatuak izatea.

n) SEEPari dagokionez kontratatze debekurik ez egotea.

Kontratistak/azpikontratistak nahitaez bete behar du dirulaguntzarik eskuratu ez izana, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, uraren hiriko zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko deialdi eta programa batean, dirulaguntza- edo laguntza-eskatzaile gisa (ESEPE, ur-zikloaren digitalizazioa).

Baztertze arrazoia izango da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 29.7 e) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honako hau: kontratistak/azpikontratistak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, uraren hiriko zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko deialdi eta programa berean dirulaguntza- edo laguntza-eskatzaile izateko aukera izanagatik ere (ESEPE, ur-zikloaren digitalizazioa), dirulaguntzarik eskuratu ez izana betekizunak betetzen ez dituelako edo balorazio nahikorik lortu ez duelako.

30. EGINDAKO LANEN DESKRIBAPENA.

Partzuergoaren jabetza bilakatuko dira bai kontrataturiko prestazioak, bai eginiko lanei datxekien eskubide guztiak, eta haien jabetza industrial nahiz komertziala; ondorioz, dagozkien dokumentu eta material guztiak biltzeko aukera izango du une oro, aurrekari, datu eta prozedura guztiak barne.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren arloko eskubide batez babestutako produktuak garatzea eta erabilgarri jartzea xedetzat duten kontratuek botere Partzuergoari laga beharko diote eskubide hori, kondizio-agiri honen 12.1 e) klausulan xedatutakoari jarraikiz.

Kontratistak euskarri informatikoan eman beharko dizkio Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari lanak egitean erabilitako datu, kalkulu, prozesu eta prozedura guztiak.

Jabetza intelektualaren xede diren lanak Partzuergoari baino ez zaizkio lagako, lehendik dauden eskubideak izan ezik, balitekeelako eskubideon lagapena eskusiboa ez izatea.

Bilbon, sinaduran adierazitako datan

KONTRATAZIO ARLOKO ARDURADUNA



2024-11-19

I. ERANSKINA. PROPOSAMEN-EREDUA

Nik jauna/andrea naizenak, adinez nagusiak,
.....(e)(a)n bizi naizenak eta NAN zenbakidunak, nire izenean
edo(a)ren izenean eta ordezkari gisa (bizilekua:.....;
telefonoa:.....),(e)ko notarioa den jaunak/andreak,
protokolo-zenbakidunak,(e)(a)n, haren alde emandako ahalorde-eskriaturatik
ondorioztatzen denaren arabera, **Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak**
..... (espediente-zk.:.....) **kontratatzeko deitutako**
lizitazioaren jakitun, honako hau adierazten dut:

1) Kontratu hau zuzendu behar duten administrazio-klausulen agiria, preskripzio
teknikoen agiria eta gainerako dokumentazioa ezagutzen ditut, eta espresuki erabat
onartzen eta betetzen ditut.

2) Ordezkatzen dudan enpresak bete egiten ditu indarrean dagoen araudiak
eskatzen dituen kondizio eta betebeharrak guztiak irekitzeko, instalatzeko eta martxan
jartzeko.

3) euroan, **BEZik gabe exekutatzeko konpromisoa**
hartzen dut,(e)ko epean eta(e)ko bermealdiarekin.

Prezioek kontzeptu guztiak hartzen dituzte barne, baita zergak, gastuak, tasak eta zerga-
eremu guztietako arielak ere, eta kontratistaren mozkin industrialak, balio erantsiaren
gaineko zerga (BEZa) izan ezik.

(Tokia, data, izena, NANA, sinadura eta zigilua)

Eranskina: Prezio unitarioen zerrenda eta aurrekontua

II. ERANSKINA. LOTUTAKO ENPRESEN ADIERAZPEN-EREDUA.

..... jaunak/andreak, adin nagusiak, udalerriko kalean edo
plazan bizi denak, NAN zenbakidunak, eta bere izenean eta zuzenbidean
edo ordezkatzuz, den aldetik,
«.....» izeneko kontraturako aurkeztutako
proposamenari dagokionez, bere erantzukizunpean haxe adierazten du:

(Adierazi zer dagokion):

☐ Enpresa eskaintzailearekin lotutako enpresak direla erantsitako zerrendan jasotakoak,
eta aipatutako manuan zehaztutako betekizunak betetzen dituen bestelako enpresarik
ez dagoela.

Sozietate-izena:..... IFZ/IFK:.....

1.-

2.-

3.-

☐ Enpresa eskatzaileak ez du lotutako enpresarik.

Lekua, eguna eta lizitatzzailearen sinadura.

III. ERANSKINA. BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN INGURUMEN- BETEKIZUNAK



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia

INGURUMEN POLITIKA

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren egiteko nagusia partzuergoratutako udalen lurralde-eremuan ur hornidura eta saneamendu zerbitzuak ematea da.

Partzuergoak, iraunkortasun eta bikaintasun printzipioei jarraiki, uste du alde batera utzi ezinezko betebeharrak dela bere jardueraren ingurumen alderdiak kudeatzea, aplikagarriak diren nazioarteko irizpideekin bat etorriko den eta erakundearen prozesu guztietara iritsiko den kudeaketa sistema baten bitartez. Horretarako, jarraian adieraziko diren konpromisoak garatzen dituzten ingurumen arloko helburuak eta xedeak ezartzen ditu:

- Indarrean dagoen ingurumen arloko legeria aplikagarria betetzea, bai eta bere gain hartzen dituen beste era bateko ingurumen-betebeharrak ere.
- Ingurumen-eraginak minimizatzea eta kutsadura prebenitzea, bere jardueraren alderdi guztietan eskuragarri dauden teknologia eta praktikarik onenak aplikatuz.
- Bere prozesuetarako beharrezkoak diren baliabide naturalen, baliabide energetikoen eta lehengaien kontsumoa optimizatzea.
- Ezarritako ingurumen kudeaketarako sistemaren funtzionamendua eta ingurumen arloko portaera etengabe ikuskatu eta hobetzea.
- Erakundearen prozesu eta maila guztietan iraunkortasun-irizpideen ezarpena sustatzea, kalitate sistema, laneko arriskuak prebenitzeko sistema eta ingurumen sisteman Kudeaketako Sistema Integratuan sartzea ahalbidetuz.
- Langileek betetzen dituzten zereginetan ingurumen-prestakuntza egokia sustatzea, ingurumenari dagokionez daukaten trebakuntza eta motibazioa handitzeko.
- Ingurumen arloko konpromiso hauek eta lortutako emaitzak erakundearen maila guztietan nahiz bezeroen, hornitzaileen, kontratisten eta jendearen artean hedatzea.

Bilbon, 2008ko urriaren 23an


POLÍTICA AMBIENTAL

El Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia tiene como misión primordial la prestación de los servicios de abastecimiento de agua y saneamiento en el ámbito territorial de los municipios que lo componen.

El Consorcio, siguiendo principios de sostenibilidad y excelencia, considera una obligación ineludible gestionar los aspectos ambientales de su actividad por medio de un sistema de gestión, acorde con los criterios internacionales aplicables y que alcance todos los procesos de la entidad. Para ello, establece objetivos y metas medioambientales que desarrollan los siguientes compromisos:

- Cumplir la legislación ambiental vigente aplicable, así como las obligaciones ambientales de otro tipo que se asuman.
- Minimizar los impactos ambientales y prevenir la contaminación aplicando las mejores tecnologías y prácticas disponibles en todos los aspectos de su actividad.
- Optimizar el consumo de recursos naturales, energéticos y materias primas necesarios para sus procesos.
- Revisar y mejorar constantemente su comportamiento ambiental y el funcionamiento del sistema de gestión ambiental implantado.
- Promover la incorporación de criterios de sostenibilidad en todos los procesos y niveles de la organización, facilitando la integración de los sistemas de calidad, prevención de riesgos laborales y medio ambiente en un Sistema Integrado de Gestión.
- Proporcionar la formación ambiental adecuada a las funciones que desempeñan sus empleados con objeto de aumentar su preparación y motivación respecto al medio ambiente.
- Difundir estos compromisos y el resultado de su desempeño ambiental a todos los niveles de la organización, sus clientes, proveedores, contratistas y al público en general.

Bilbao, 23 de octubre de 2008


Pedro María Barreiro Zubiri
Gerentea

BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREKIKO (BBUP) KONTRATUETAN APLIKATZEKO INGURUMEN-ARAUAK

Kontratua sinatuz, adjudikaziodunak dokumentu honetako betekizunak betetzeko konpromisoa hartzen du, kontratatutako lanen garapenean aplikatzekoak diren neurrian, eta bete izanaren frogak emateko, beharrezkoa izanez gero.

ARAU OROKORRAK

- ❖ Kontratuaren adjudikaziodunak bermatuko du kontratuaren xedearekin lotuta egiten dituen jarduerari aplikatzekoak diren legezko betekizun guztiak betetzen dituela.
- ❖ BBUPentzat lan egiten duten langile guztiek behar den gaitasun profesionala eta prestakuntza-maila izango dute lanok egiteko eta jardueraren ondoriozko ingurumen-alderdiak behar bezala kudeatzeko, eta adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da ekipoak kontratatutako zerbitzuen xedera egokitzea.
- ❖ Adjudikaziodunak lanak egitean baliabide naturalak (energia, ura, etab.) zentzuz erabiltzen direla zainduko du.
- ❖ Adjudikaziodunak behar diren prebentzio-neurri guztiak aplikatu beharko ditu kontratatutako lanak exekutatu bitartean ingurumen-inpaktu negatiboak eragozteko edo minimizatzeko.
- ❖ Adjudikaziodunak kontratatutako lanekin lotutako larrialdi-egoerei aurre egiteko behar diren kontingentzia-baliabideak izango ditu.
- ❖ Ingurumen-gorabeherarik edo -istripurik gertatuz gero, adjudikaziodunak ahalik eta lasterren jakinaraziko dio gorabehera Kontratuaren zuzendariari. Gorabeherari buruzko txosten idatzia (arrazoiak eta hartutako ekintza zuzentzaileak) eskatu ahal izango dio.
- ❖ BBUPek beretzat gordetzen du ingurumen-betebeharrak ez betetzeagatik sortzen diren ekintzak eta gastuak adjudikaziodunari jasanarazteko eskubidea.

ARAU ESPEZIFIKOAK

HONDAKINAK

- ❖ Adjudikaziodunaren ardura da bere lanak egin bitartean sortutako hondakin guztiak kudeatzea, eta berariaz debekatuta dago era guztietako hondakinak BBUPen instalazioetan ezabatzea edo biltzea. Halaber, debekatuta dago hondakinak kontrolik gabe abandonatzea, isurtzea, erretzea eta ezabatzea.
- ❖ Hondakinak edukiontzi bereizietan eta horretarako behar bezala identifikatuetan jarriko dira.
- ❖ Ez dira izaera bera ez duten hondakin arriskutsuak nahasiko, ezta hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak ere.
- ❖ Hondakinak indarrean dagoen legeriari jarraikiz kudeatuko dira, eta honako premisa hauek beteko dira:
 - Erregelamenduzko dokumentazio guztia edukitzea: onarpen-dokumentuak, lekualdaketa-jakinarazpenak, kontrol- eta jarraipen-dokumentuak eta suntsipen-ziurtagiriak.
 - Erregistro eguneratua edukitzea BBUPentzat eginiko jardueragatik kudeatutako hondakinekin.

ISURKETAK

- ❖ Ezin dira substantzia arriskutsuak (erregaiak, disolbatzailea, pintura, olioak, etab.) saneamendu-sarera isuri. Adjudikaziodunari leporatzeko moduko isuririk antzemanaz gero, hura tratatzearen ondoriozko gastuak egotziko zaizkio.
- ❖ Substantzia arriskutsuak istripuz isuriz gero, berehala bilduko dira, landare-lurzorura eta saneamendu-sarera iristea eragotziko da, eta BBUPi ahalik eta lasterren jakinaraziko zaio.
- ❖ Isurketa baimendu beharra duten obrak eginez gero, kontratistak jarduera hasi aurretik eduki beharko du baimena.

EMISIOAK

- ❖ Lanak egin bitartean, ahal den neurrian, atmosferarako emisioak eragotziko dira.
- ❖ Hauts-emisioak gertatuz gero, neurriok hartuko dira: ukitutako eremua hezetzea eta emisioak eragiten dituzten materialak eta kargak estaltzea.
- ❖ Debekatuta dago materialak erretzea.

ZARATA

- ❖ Ez dira gaindituko lanak egiten diren udalerriak ezarritako kanpoaldeko soinu-mugak.
- ❖ Ahal den neurrian, ez dira aldi berean egingo zarata handia ateratzen duten zereginak.
- ❖ Ekipoek eta makinek ingurumen-arloan zaratari eta emisioei dagokienez ezarritako legeria beteko dute. Une oro egongo dira eskuragarri makinan bertan edo adjudikaziodunaren etxolan CE markari buruzko dokumentazioa eta jarraibideen eta mantentze-lanen liburua.
- ❖ Makinak aldian-aldian mantentzeaz arduratuko da enpresa kontratista, haien desdoikuntzek zarata gehiago sortzea eragozteko.

PRODUKTU KIMIKOEN BILTEGIRATZEA ETA MANIPULAZIOA

- ❖ Legez araututako produktu kimikorik erabil behar den guztietan, kontratistak hura erabiltzeko baimen guztiak edukiko ditu, indarrean dagoen legerian ezarritako jarraibideak aintzat hartuta.
- ❖ Erregaiak eta/edo bestelako substantzia arriskutsuak kondizio hauetan biltegitratuko dira:
 - Teilatupean eta eremu zolatuan. Halaber, kubeta edo biltzeko sistema egokiak izan beharko dira, izan litezkeen isuriak kanpora irtetea eragozteko. Euste-sistema horiek garbiketa- eta mantentze-egoera egokian mantenduko dira. Berreskuratzeko/atxikitze elementu osagarriak (absorbatzaileak) egongo dira.
 - Ontzi bakoitza behar bezala identifikatuta egongo da, eta, biltegitratzeko tokietan, produktu biltegitratuen Segurtasun Datuen Fitxak jarriko dira.
 - Produktu kimikoak biltegitratzeari buruzko legeria beteko da, biltegitratzeko kantitatei eta bateraezintasunei dagokienez.
 - Erabat debekatuta dago substantzia arriskutsuak zolatu gabeko eremuetan pilatzea.

BBUP-EN INSTALAZIOETAN APLIKATZEKO ARAUAK

- ❖ Guztiz debekatuta dago era guztietako jarduerak hastea BBUPen instalazioetan Kontratuaren zuzendariak edo lanen ikuskapenaren arduradunak adostasun espresurik eman ezean.
- ❖ Adjudikazioduna guztiz autonomia izan beharko da lanak egiteko. Era berean, haren kontura joango dira behar diren bitarteko osagarri guztiak (garraioak, garabiak, aldamiok, ekipo elektrogenoak, etab.).
- ❖ Oro har eta Kontratuaren zuzendariak baimen espresurik ezean, adjudikaziodunak ezin izango ditu erabili BBUPen instalazioetako energia-iturriak (elektrikoa barne). Horrenbestez, bere bitartekoak erabiliz sortuko du (behar den legeko dokumentazioa edukita) kontratatutako lanak exekutatze behar duen energia elektrikoa.
- ❖ Ura hartzeko aukera izango du zehazten zaion tokian, eta saneamendu-sareko lotunea ere izango du (beharrezkoa bada); adjudikaziodunaren erantzukizuna izango da languneraino edo langunetikako uraren banaketa- eta saneamendu-sarea. Indarrean dauden erregelamenduak eta dagozkien segurtasun-arauak betez egingo dira biak, eta Kontratuaren zuzendariaren oniritzia izango dute.

- ❖ Lanen iraupenaren arabera, oro har eta instalazioan toki nahikorik badago, adjudikaziodunak bere kontura, eta Kontratuaren zuzendariaren nahitaezko onespeneren ostean, instalatuko ditu kontratatutako lanak normaltasunez egiteko behar diren etxolak, higiene-zerbitzuak, biltegiak eta bilketak.
- ❖ Adjudikazioduna eta ez beste inor arduratuko da langunea txukun eta garbi edukitzeaz, bai eta obra-etxolen eremua (halakorik badago) segurtasun- eta garbitasun-kondizio egokietan izateaz ere. Eremu horiek egunero txukundu beharko dituzte lanaldia amaitzean. BBUPek eskubidea izango du, zabarkeriarik antzemanaz gero, eremu horiek hirugarren bat kontratatuta egiteko, eta adjudikaziodunaren kontura joango da zerbitzuaren kostua.
- ❖ BBUPek ez du bere gain hartzen adjudikaziodunaren bitarteko osagarriek izandako lapurreten edo kalteen erantzukizunik. Horrenbestez, egokitzeak jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu ekipoen segurtasuna lanak amaitu arte bermatzeko.
- ❖ Debekatuta dago ibilgailuak eta makineria mantentzeko eta konpontzeko lanak egitea BBUPen instalazioetan, Kontratuaren zuzendariaren adostasun espresurik ezean.
- ❖ Kontratuaren zuzendariak baimendu beharko du, lanak amaituta, instalazioak kendu eta obra osagarriak eraits ditzaten, eta lan hori egitera behartu ahal izango du, baldin eta, bere iritziz, obraren inguruabarrek hala behar badute.
- ❖ Adjudikaziodunaren kontura joango dira honako lan hauek eragindako gastuak: lursaila egokitzea; instalazioak ezartzea, kentzea eta lekuz aldatzea; obra osagarriak eraistea, eta okupatutako azalerak egokitu eta garbitzea jatorrizko itxurara berriz eramateko. Lan horiek Kontratuaren zuzendariaren adostasuna lortu beharko dute obra osoa bukatutzat har dadin.
- ❖ Kontratutako zerbitzuak horrela behar izanez gero, adjudikaziodunak egin beharko ditu instalazio berriak legeztatze behar diren lan eta izapide tekniko-administratibo guztiak (eskaerak, proiektuak idatzi eta ikus-onestea, ikuskapen ofizialak, etab.), bai eta harrera-probak egiteko behar direnak ere. Sortutako gastu guztiak adjudikaziodunaren kontura joango dira, eta, lanak bukatuta, Kontratuaren zuzendariari emango dio sortutako dokumentazio guztia.
- ❖ BBUPen instalazioetan izan beharreko jokabideaz zalantzarik badago, adjudikaziodunak Kontratuaren zuzendariarengana edo harremanetarako pertsonarengana joko du, informazioa eskuratzeko.

IV. ERANSKINA. PERTSONA JURIDIKOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA.

Nik,jauna/andrea naizenak, NAN zenbakidunak,
..... sozietatearen izenean (IFZ:),
kontuan hartuta ahalorde-eskritura (edo ordezkatzeko
duen pertsona juridikoaren izenean jarduteko gaitzen duen dokumentua), Bilbao Bizkaia Ur
Partzuergoarekin kontratua egiteko,

nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DUT:

- 1..- Ordezkatzeko dudako enpresak behar den jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridikoa eta gaikuntza profesionala du Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin exekutatzeko kontratua ituntzeko. Enpresaren objektu sozialak kontratu honen xede den jardura hartzen du barne, haren estatutu sozialen artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Estatutu horiek behar bezala inskribatuta daude dagozkien erregistroetan.
- 2..- (*Aukeratu bat*)
Enpresak kontratazioa egiteko behar den sailkapena/kaudimena du
edo
Enpresak kontratazioan lehiatzeko ezarritako gutxieneko sailkapen/kaudimeneko betekizunak betetzen ditu, eta honako honen bitartez osatzen du (*markatu zein dagokion*):
 - a- Lizitazioan lehiatzeko aldi baterako enpresa-elkartea eginez..... enpresarekin, eta berariaz hitzematzen du ABEEa eratutako duela gure eskaintza kontratuaren adjudikazioduna bada (kasu honetan, etorkizuneko ABEEa osatutako duten enpresa guztiek sinatu behar dute adierazpena).
 - b- Kanpoko bitartekoak erabiliz honako prestazio hauek gauzatzeko:.....
Kanpoko bitartekoak hauek dira:..... eta(e)k jarriko ditu. Horretarako, honako hau sinatu da enpresa horrekin:.....
- 3..- (*Aukeratu bat*)
Lizitazio honetan ez da lehiatuko ordezkatzeko dudako enpresa kide den enpresa taldeko bestelako enpresarik
edo
Lizitazio honetan eskaintzak aurkeztuko dituzte ordezkatzeko dudako enpresa kide den enpresa talde bereko honako enpresa hauek:
.....
(*Enpresa talde bereko sozietatetzat joko dira Merkataritza Kodearen 42.1 artikuluan jasotako kasuetako batean daudenak*)
- 4..- Ez nik neuk ez ordezkatzeko dudako pertsona juridikoaren administratzaile bakar batek ere ez dugu Administrazioarekin kontratuak egiteko inolako debekurik; hain zuzen ere, SPKLaren 71. artikuluan ezarritako debekurik.
- 5..- Ordezkatzeko dudako enpresak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ditu.
- 6..- Ordezkatzeko dudako enpresak EZ/BAI (*markatu zein dagokion*) ditu 50 langile edo gehiago, (*kopuru horretatik gorakoak badira*) eta enpresan desgaitasuna duten langileak dira; hau da, langileen % dira kolektibo horretakoak (*aukeratu bat, kasua zein den*), eta ondorioz,

osatu egin da langileen % 2k baino gehiagok desgaitasuna izateko betekizuna lege ezarritako honako ordezkotzako neurri hauen bitartez:.....

7.- Aurkezten dudana eskaintzak bermatzen du, langileei eta produktuak eta/edo zerbitzuak egiteko erabilitako produkzio-prozesuei dagokienez, bai eta kontratua exekutatzean ere, ingurumenaren, gizartearen eta lanaren arloko betebeharrak betetzea, Espainiako eta EBko Zuzenbidea betetzea, eta Europar Batasunak sinatutako arlo hauen gaineko nazioarteko zuzenbideko xedapenak.

8.- Ordezkatzen duen enpresak dirulaguntzarik eskuratu ez izana, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, uraren hiriko zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko deialdi eta programa batean, dirulaguntza- edo laguntza-eskatzaile gisa (ESEPE, ur-zikloaren digitalizazioa).

Baztertzeko arrazoa izango da, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, 29.7 e) artikuluan xedatutakoari jarraikiz, honako hau: kontratistak/azpikontratistak, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan, uraren hiriko zikloaren efizientzia hobetzeko proiektuak egiteko norgehiagoka bidezko laguntzak emateko deialdi eta programa berean dirulaguntza- edo laguntza-eskatzaile izateko aukera izanagatik ere (ESEPE, ur-zikloaren digitalizazioa), dirulaguntzarik eskuratu ez izana betekizunak betetzen ez dituelako edo balorazio nahikorik lortu ez duelako.

9.- Espediente honekin zerikusia duten jakinarazpen guztiak jasotzeko helbide elektronikoa hauxe da:.....

Hori guztia adierazten dut SPKLaren 140. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta, kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, hitzematzen dut betekizunen egiaztagiria aurkeztea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskatutako epearen aurrean. Adierazten dut, halaber, betekizun guztiak betetzen ditudala erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko unean eta Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari berriazko baimena ematen diot hala dela zuzenean egiaztatzen.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

Izptz.:

(enpresaren zigilua)

V. ERANSKINA. PERTSONA FISIKOEN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA:

Nik,jaunak/andreak,NAN zenbakidunak, nire
izenean eta jakinarazpenak jasotzeko(e)(a)n bizi naizenak,

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarekin kontratua egiteko,

nire erantzukizunpean ADIERAZTEN DUT:

- 1.- Baditut(e)ko kontratua gauzatzeko ezaugarri partikularren
taulan eskatutako jarduteko gaitasuna eta gaitasun juridikoa, gaikuntza profesionala,
sailkapena eta/edo kaudimena.
- 2.- Ez nago administrazioarekin kontratua egiteko debeku-egoeretan; hain zuzen, SPKLaren
71. artikuluan ezarritakoetan.
- 3.- Egunean ditut zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- 4.- Aurkezten dudan eskaintzak bermatzen du, langileei eta produktuak eta/edo zerbitzuak
egiteko erabilitako produkzio-prozesuei dagokienez, bai eta kontratua exekutatzean ere,
ingurumenaren, gizartearen eta lanaren arloko betebeharrak betetzea, Espainiako eta
EBko Zuzenbidea betetzea, eta Europar Batasunak sinatutako arlo hauen gaineko
nazioarteko zuzenbideko xedapenak.
- 5.- Espediente honekin zerikusia duten jakinarazpen guztiak jasotzeko helbide elektronikoa
hauxe da:.....

Hori guztia adierazten dut SPKLaren 140. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta,
..... kontratuaren adjudikaziodun gertatuz gero, hitzematzen dut betekizunen egiaztariak
aurkeztea Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak eskatutako epearen aurrean. Adierazten dut, halaber,
betekizun guztiak betetzen ditudala erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko unean eta Bilbao
Bizkaia Ur Partzuergoari berariazko baimena ematen diot hala dela zuzenean egiazta dezan.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n

Izptz.:

VI. ERANSKINA. ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOAK KONFIDENTZIALTZAT JOTZEKO EREDUA

(ADMINISTRAZIOAK ESKATZEAN BAKARRIK AURKEZTU BEHARREKOA)

Nik(e)ko
kalean bizi naizenak eta NAN zenbakidunak, nire
izenean/..... enpresaren ordezkari gisa (egoitza:
.....(e)ko kalea, PK: eta
IFK:.....),

adierazten dut:

.... gutun-azalean (adierazi zer gutun-azali dagokion) aurkeztutako dokumentazioan,
konfidentzialtzat jotzen dira eskaintzako honako informazio eta dokumentu hauek, sekretu tekniko
edo komertzialekin duten loturagatik:

.....

.....

.....

..... (e)(a)n,(e)ko(a)ren(e)an

Izptz.:

(enpresaren zigilua)

KONTRATU NAGUSIKO PRESTAZIOEN ZATI BAT EXEKUTATZEKO AZPIKONTRATAZIO-PROPOSAMENA

Kontratua: Kontratuaren izena
Espedientea: XXXX
Adjudikazioduna: Enpresaren izena
Adjudikazioaren aurrekontua: XX € + BEZa

VII. ERANSKINA. AZPIKONTRATAZIOA.

_____jaunak/andreak (NAN/AIZ: _____), bere izenean
edo _____ enpresaren ordezkari gisa (IFK: _____),
_____ gisa, SPKLan ezarritakoa betez, honako hau jakinarazten du:

- ☐ Ez du azpikontratzeko asmorik.
- ☐ Ondoren emandako datuak dituzten enpresekin azpikontratzeko asmoa du.
 - Enpresa horrek/horiek ez du/dute kontratatze desgaikuntzarik ordenamendu juridikoari jarraikiz, eta ez dago/daude SPKLaren 71. artikuluko kasuetako batean sartuta.
 - Azpikontratatze prestazioek ez dute gainditzen kondizio-agirietan ezarritako gehieneko ehunekoa.
 - Enpresa nagusi gisa, _____(enpresaren izena) enpresak SPKLaren 215. artikuluan ezarritakoa betetzea hitzematzen du.
 - Obra-kontratuetan, enpresa azpikontratatistek urriaren 18ko 32/2006 Legean ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.

AZPIKONTRATIS TAREN NORTASUNA	AZPIKONTRATAT U BEHARREKO PRESTAZIOAREN ZATIA	LANAK HASTEKO DATA	AURREIK USITAKO IRAUPEN A	ADJUDIKAZIO- ZENBATEKOA REN %-A

Bilbon, 20...(e)koaren(e)(a)n

Izptz.: Izen-abizenak

Kontratistak

VIII. ERANSKINA. LANGILEEN SUBROGAZIOA.

IX. ERANSKINA. INTERES-GATAZKARIK EZAREN ADIERAZPENA (IGEA).

Kontratua:

_____ **jaunak/andreak** (IFK: _____) eta _____ (e)(a)n bizi denak, eta haren izen eta ordezkari gisa, _____ jaunak/andreak, adinez nagusiak, _____ NAN zenbakidunak, _____ gisa, _____ (e)ko notarioa den _____ jaunak/andreak, _____ egunean, bere protokolo _____ ordena-zenbakiarekin, baimendutako eskritura publikoari jarraikiz, zeinak, kontratazio-prozedurako inpartzialtasuna bermatzeko xedez, SEEPetik datozen errekurtsoekin finantzatutako laguntzetan kontratista edo azpikontratista gisa parte hartzen duen, adierazten du / adierazten dute:

Lehena. Ezagutzen ditu Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean ezarritako betekizun guztiak betetzearekin lotuta hartutako konpromisoak eta, bereziki, BBUPen iruzurraren aurkako neurrien planean ezarrita dauden eta entitate kontratatzaile aplikagarri zaizkionak.

Bigarrena. Adierazten du ez dagoela planean entitateak lizitatutako kontratuaren arduradunekin interes-gatazkarik eragiteko modukotzat jotako egoeretako bakar batean. **ADIERAZTEN DU:**

- a) Ez du EBko estatu kide bateko agintaritza eskudunak kondenatu, kondena betetzeko zain egonik, epai irmo batez, gauza epaituaren indarrarekin, etika profesionalean eragiten duen delitu bategatik, delitua preskribatu ez bada.
- b) Ez du egin alderdi interesdunek alegatzeko moduko bide batez frogatutako falta profesional astunik, zehapena noiz beteko zain egonik, falta preskribatu ez bada.
- c) Ez dute kondenatu, kondena betetzeko zain egonik, epai irmo batez, gauza epaituaren indarrarekin, iruzurratik, ustelkeriagatik, gaizkile-erakunde batean parte hartzeagatik, kapital-zuritzeagatik eta Europar Batasunaren finantza-interesei kalterik dakarkien legez kanpoko beste edozein jardueragatik, delitua preskribatu ez bada.
- d) Ez du administrazio-zehapenik jaso, hura noiz beteko zain egonik, agintari eskudunek eskatutako informazioa ematean adierazpen faltsuak egiteagatik, edo informazio hori ez emateagatik, falta preskribatu ez bada.

Halaber, **ADIERAZTEN DU:**

- e) Ez dagoela bera, ezta, halakorik badago, ordezkatzeko duen pertsona juridikoa ere, egoera batean, zeinak arriskuan jar baitezake lizitazio-prozeduran edo dirulaguntza emateko prozeduran parte hartzeagatik eskatu beharreko betebeharrak betetzea, ez eta kontratista espedientearen adjudikaziodun gertatzen bada izango lituzkeen betebeharrak betetzea ere.
- f) BBUPi jakinaraziko dio, luzatu gabe, interes-gatazka den edo lekarkeen edozein egoera.
- g) Ez du inolako abantailarik (finantzarioa edo gauzazkoa) ez eman ez emango, ez bilatu ez bilatuko, ez da halakorik lortzen saiatu ez saiaturik, inoren alde edo inoren aldetik, baldin eta abantaila hori legez kanpoko jardunbidea bada eta

ustelkeria edo iruzurra badakar, zuzenean edo zeharka, dirulaguntza bat emanez, kontratu bat adjudikatuz edo jarduera bat mandatuz eragiketa kofinantzagarrian izaniko parte-hartzearen ondoriozko pizgarria edo saria delako.

- h) BBUPi informazio zehatza, egiazkoa eta osoa eman dio eragiketa honen esparruan.

Hirugarrena. Honako hauen berri duela adierazten du:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egin zuen, Espainiako ordenamendu juridikora egokitzeko. Bada, Lege horren 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») honela definitzen du interes-gatazka: «Kontratazio-organoaren zerbitzura dauden langileek, lizitazio-prozeduraren garapenean parte hartzen dutenek edo prozeduraren emaitzan eragina izan dezaketenek, zuzenean edo zeharka interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala izatea, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar dezakeena».
3. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak honako hau ezartzen du: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua aplikatuko zaie erakunde erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute deskribatutako prozeduretan, kontratuak adjudikatzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan».
4. Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak honako hau ezartzen du:
 - «Tresna informatikoaren bidez, familia-harreman edo sozietate-lotura zuzenak edo zeharkakoak aztertuko dira, hain zuzen, aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa eduki dezaketanak».
 - «Harremanak edo loturak identifikatzeko, tresnak, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d).iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen titulartasun errealeko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu baseetan daudenak, bai eta notarioen eta erregistratzaileen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak ere».

Laugarrena. Adierazpen hau sinatzean, eta bere esku dagoen informazioa kontuan hartuta, ez dagoela sartuta dirulaguntzak lizitzatzeko/emateko prozeduran eragina izan dezakeen interes-gatazkatzat jo daitekeen egoeraren batean, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitako eran.

Bosgarrena. Konpromisoa hartzen du kontratazio-organoari jakinarazteko, luzapenik gabe, izan litezkeen interes-gatazken arrisku oro edo beste edozein inguruabar iruzurra eta ustelkeria prebenitu eta antzemateko.

Seigarrena. Badaki interes-gatazkarik ezaren adierazpena faltsua dela frogatuz gero, adierazpen horrek jasoko dituela entitateak bere kodean ezarritako aurreikuspenak eta ondorioak, eta balitekeela erantzukizun penalen exigentzia ekartzea.

Izen osoa eta NANA, enpresaren ordezkaria (IFZ:)

betez

Data eta sinadura

**X. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, INGURUMEN-ARLOKO
SEI HELBURUEI EZ KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO PRINTZIOA
(DNSH) [2020/852 (EB) ERREGELAMENDUAREN 17. ARTIKULUA] BETETZEARI
BURUZKOA.**

ADIERAZPEN-EGILEA:

Izen-abizenak	
honako hau den aldetik ¹	
IFZ	
honako hau ordezkatzuz	
IFK	

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

Ordezkatzen duen entitateak, garatu beharreko proiektuaren edo jardueraren bizi-zikloaren fase guztiak kontuan hartuta (ezartzean nahiz bizitza baliagarriaren amaieran), bete egingo du «ingurumenari-kalte esanguratsurik ez eragite»ko DNSH printzipioa, zeina 2021/241 (EB) ERREGELAMENDUAK, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzekoak, eskatzen duen. Hori horrela:

- A. Egingo diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten ingurumeneko helburu hauei, ingurumenaren aldetik jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») ezarriz inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluen arabera:
1. Klima-aldaketa arintzea.
 2. Klima-aldaketara moldatzea.
 3. Ur eta itsas baliabideak modu jasangarrian erabiltzea eta babestea.
 4. Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
 5. Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea
 6. Biodibertsitatea, atmosfera eta ekosistemak babestea eta leheneratzea.
- B. Jarduerak, hala badagokio, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko XX. <<.....>>(e)rako ezarritako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira, eta, besteak beste, honako kondizio hauek betetzen dituzte:
- i. Jarduketak exekutatzean, eraikuntza-lanetan sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuari dagokionez), gutxienez, berrerabili, birziklatu edo berreskuratuko dela bermatuko da (alde batera utzita 2000/532/EE Erabakiak ezarritako Europako Hondakinen Zerrendako 17 05 04 kategorian aipatzen diren jatorri naturaleko materialak), beste material batzuen ordezkariarekin eta EBko Eraikuntza eta Eraispeneko Hondakinak Kudeatzeko Protokoloarekin bat etorriz.

¹ Legezko ordezkaria, entitate eskatzailearen barruko kargua.

- ii. Eraikuntza- eta eraispén-prozesuetan, operadoreek hondakinen sorrera mugatuko dute, EBko Eraikuntza eta Eraispéneko Hondakinak Kudeatzeko Protokoloaren arabera. Horretarako, eskura dauden teknikarik onenak kontuan hartuko dituzte eta eraispén selektiboak erabiliko dituzte, substantzia arriskutsuak modu seguruan bereizi eta manipulatu ahal izateko eta materialak gaika bereiziz kalitate handiko berrerabiltzea eta birziklatzea errazteko, eraikuntza- eta eraispén-hondakinetarako eskuragarri dauden sailkapen-sistemak erabiliz.
 - iii. Proiektua eta eraikuntza-teknikak bateragarriak izango dira zirkulartasunarekin, eta, ISO 20887 arauari edo eraikuntzen moldagarritasuna ebaluatzeko beste arau batzuei erreferentzia eginez, erakutsiko dute nola diseinatu diren baliabideekin eraginkorrak, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.
 - iv. Kogenerazio bidezko atmosferarako emisioak teknika erabilgarri onenekin lotutako emisio-mailetakoak edo txikiak izango dira.
 - v. Araztegiko lobiak Kontseiluaren 86/278/EEE Zuzentaraua eta Estatuko legeria betez kudeatu edo erabiliko dira, digestio anaerobikoa eta lurlean aplikatzea barne.
- C. Proiektuan gauzatzen diren jarduerak aplikatzeko den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.
- D. Gauzatzen diren jarduerak ez daude baztertuta Planaren bitartez finantzatzeko aukerarik, «Kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzei buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari eta dagokion eranskinari jarraikiz.
- 1. Petrolio gordinaren findegia, ikatz-zentral termikoak eta petrolio edo gas naturala erauztea dakarten proiektuak eraikitzea, klima-aldaketa arintzeko helburuari eginiko kalteagatik.
 - 2. Erregai fosilekin lotutako jarduerak, haiek ostean erabiltzea barne, salbu eta gas naturala erabiliz elektrizitatea eta/edo beroa sortzearekin lotutako proiektuak, bai eta loturiko garraio- eta banaketa-azpiegiturarekin lotutakoak ere, baldin eta Europako Batzordearen Gida Teknikoaren III. eranskinean ezarritako kondizioak betetzen badituzte.
 - 3. EBko isurketa-eskubideen salerosketa araubideko (RCDE) jarduerak eta aktiboak, aurreikusten bada sortuko dituzten berotegi-efektuko gasen isuriak ez direla egongo dagokien erreferentziako parametroetatik behera. Diruz lagunduko jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen emisioak erreferentziako parametroak baino nabarmen txikiak ez direla izango aurreikusiz gero, horri buruzko azalpen arrazoitua eman beharko da.
 - 4. Emisio-eskubideen salerosketa-araubidearen zeharkako kostuen konpentsazioa.
 - 5. Hondakin-zabortearekin eta erraustegiekin lotutako jarduerak, eskusioa ez zaie aplikatzen birziklatu ezin diren hondakin arriskutsuak baino tratatzen ez dituzten instalazioetako ekintzei, ezta lehendik dauden instalazioetako ere, baldin eta ekintzak horien xedea bada energia-efizientzia handitzea, ihes-gasak biltegitatu edo erabiltzeko atzitzea, edo

- erraste-errautsetatik materialak berreskuratzea, betiere ekintza horiek ez badakarte instalazioetako hondakinen tratamendu-gaitasuna handitzea edo haien bizitza baliagarria luzatzea; xehetasunak dokumentu bidez justifikatu beharko dira instalazio bakoitzerako.
6. Tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak, eskusioa ez zaie aplikatzen lehendik dauden tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioetako ekintzei, baldin eta ekintzak horien xedea bada energia-efizientzia handitzea edo hondakin bereziak birziklatzeko eragiketarako berregokitzea (konpostatzea eta hondakinen digestio anaerobioa), betiere ekintza horiek ez badakarte instalazioetako hondakinen tratamendu-gaitasuna handitzea edo haien bizitza baliagarria luzatzea; xehetasunak dokumentu bidez justifikatu beharko dira instalazio bakoitzerako.
7. Hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalte egiten dioten jarduerak.
- E. Ekipoek bete egingo dituzte 2009/125/EE Zuzentarauaren arabera ezarritako enargiarekin lotutako betekizunak, hain zuzen ere zerbitzarietarako eta datuak biltegitartzeko edo konputagailu eta konputagailu-zerbitzari edo pantaila elektronikotarako ezarritakoak.
- F. Erosketa horietan, Europako Batzordearen IKTetarako Jokabide Kodea erabat errespetatzen duten energetikoki efizienteak diren ekipoak erosten direla ziurtatzeko neurriak aktibatuko dira, eta ezarritako tresna elektriko eta elektronikoen iraunkortasuna, konpontzeko, eguneratzeko eta berrerabiltzeko aukera handitzeko neurriak hartuko dira.
- G. Erabilitako ekipoek ez dituzte edukiko 2011/65/EB Zuzentarauaren II. eranskinean zerrendatutako substantzia debekatuak, salbu eta material homogeneoetan duten pisuaren kontzentrazio-balioek ez badituzte gaititzen eranskin horretan zerrendatutakoak.
- H. Gauzatzen diren jarduerak ez dute zuzeneko ondoriorik eragiten ingurumenean, ez eta lehen mailako zeharkako ondoriorik ere beren bizi-ziklo osoan; halakotzat jotzen dira jarduera amaitu ondoren gauzatu daitezkeenak.

.....(e)koaren(a)

Sinadura

XI. ERANSKINA DATUEN LAGAPEN ETA TRATAMENDURAKO ADIERAZPENAREN EREDUA, SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN (SEEP) JARDUERAK EXEKUTATZEAREKIN LOTURIK

Ni,jauna/andrea, NAN zenbakiduna,
.....bizi naizena, SEEPetik datozen baliabideekin finantzaturiko laguntzen
onuradun naiz eta kontratista gisa parte hartzen dut 5. osagaian (Itsasertza eta ur-
baliabideak) zehaztutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Deklaratzen
dut aplikatu beharreko araudia ezagutzen dudala, bereziki Suspertze eta Erresilientzia
Mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Legearen apartatu hauek:

1. 2. apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan, honako
datu kategoría bateratu hauek biltzea, bilaketak egitea ahalbidetuko duen
formatu elektronikoko batean eta datu-base bakar batean, erreformak eta inbertsio
proiektuak gauzatzeko neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoretza eta
kontrola egiteko:
 - a. Funtsen azken hartzailearen izena;
 - b. kontratistaren eta azpikontratistaren izena, funtsen azken hartzailea botere
adjudikatzailer bat denean, estatu-mailako edo Batasuneko kontratazio
publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorritz;
 - c. Funtsen hartzailearen edo kontratistaren benetako titularren izen-abizenak eta
jaiotza-datak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB)
Zuzentarauaren (26) 3. artikuluko 6. puntuan zehaztutakoaren arabera;
 - d. Suspertze- eta erresilientzia-planaren esparruan erreformak eta inbertsio-
proiektuak gauzatzeko neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa
publikoaren zenbateko osoa zehaztuta eta nola Mekanismoaren esparruan
hala Batasuneko beste funts batzuen esparruan ordaindutako funtsen
zenbatekoa ere adierazita».
2. 3. apartatua: «Artikulu honetako 2. apartatuko d) letzan aipatutako datu
pertsonalak estatu kideek eta Batzordeak bakarrik tratatuko dituzte, 15.
artikuluko 2. apartatuan eta 23. artikuluko 1. apartatuan aipatutako akordioak
aplikatzearekin zerikusia duten funtsen erabilerarekin lotutako kontrol-
prozeduren eta aurrekontu-kudeaketaren onarpenari buruzko auditoriaren
ondorioetarako eta iraupenerako. Batzordearen kudeaketa onartzeko
prozeduraren esparruan, EBFTren 319. artikuluari jarraikiz, Mekanismoak
txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza Erregelamenduaren 247. artikuluan
aipatutako finantza-informazioaren eta kontu-emate bateratuaren esparruan,
eta, zehazki, kudeaketaren eta errendimenduaren urteko txostenean bereizita».

Azaldutako esparru juridikoarekin bat etorritz, adierazi du datuen lagapena eta tratamendua
onartzen dituela, berariaz aipatutako artikuluetan zerrendatutako helburuekin.

xxxx(e)(a)n sinatuta, sinadura elektronikokoaren datan

Izptz.:

XII. ERANSKINA. SEEP-EAN EZARRITAKO ZEHARKAKO PRINTZPIOAK BETETZEKO KONPROMISOARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA.

Ni, (NAN:.....),
..... erakundearen
..... egoitza
(IFZ:.....)
fiskala:.....

.....) organoaren titularra/kontseilari
delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea SEEPeko baliabideekin finantzatutako
laguntzen onuraduna da, eta kontratista/enkarguaren erakunde
hartaile/a/pikokontatista modura parte hartzen du 5. osagaian (*Itsasertza eta ur-
baliabideak*) zehaztutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala,
honako hau adierazten dut: ordezkatzeko dudako pertsonak/entitateak konpromisoa du
estandarrik zorrotzenekin arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeari dagokionez, eta
behar diren neurriak hartzen ditu iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazka prebenitzeko
eta antzemateko, eta hala badagokio, bidezkoak diren agintariei emango die ikusten
dituen urraketen berri.

Horrez gain, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren edukiari kasu eginez,
konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko eta plan
horren esparruan egiten diren jarduketak gauzatzean ingurumenari kalte esanguratsurik
ez eragiteko («DNSH» sigla ingelesez, «Do Not Significant Harm»). Gainera, adierazten
du ez dagoela finantzaketa bikoitzik, eta, kasua bada, ez duela Estatuko laguntzen
arabidearekiko bateraezintasun-arriskuaren berri.

....., 202X(e)koaren ...(a)

XIII. ERANSKINA. FINANTZAKETA BIKOITZIK EZA ADIERAZTEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA.

_____, jaunak/andreak (NAN: _____),
_____, erakundearen titular/ordezkarari den aldetik (IFZ: _____),
_____, egoitza _____ fiskala: _____
baliabideen hartzaile den aldetik (SEEPetik datozen deialdiaren izena)
_____, izeneko jarduketaren esparruan, bere
erantzukizunpean, hau adierazten du:

☐ Ez du jaso Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua (SEM Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) ez den Europar Batasuneko beste edozein funtsaren laguntzarik, eta ez da aurkeztuko aurrekontu nazionaletik edo EBtik eratorritako aurrekontua duen etorkizuneko beste edozein funtsaren finantzaketarako.

Jarraitu adierazpena betetzen, soilik aurreko baieztapenean laukitxoa markatu ez bada; hau da, proiektuak beste funts baten finantzaketa jaso badu edo etorkizunean jasotzea aurreikusten bada helburu bererako:

☐ Laguntzak/dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako mugetara egokitzeko konpromisoa hartzen du.

☐ Gastuen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen du, finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.

☐ Proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea bermatzen duten mekanismoak eta kudeaketa-ahalmena daude.

☐ Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30.4 artikulua arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko agiriak aurkezteko konpromisoa hartu du.

☐ Honako datu hauek identifikatzen dira:

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK: Xede berberarekin beste administrazio edo ente publiko batek emandako edo haiei eskatutako laguntzak eta dirulaguntzak

Administrazioa edo ente publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (€)
Eskatutakoa, guztira: €			
Emandakoa, guztira:..... €			

.....(e)koaren(a)



Financiado por
la Unión Europea
NextGenerationEU



Plan de
Recuperación,
Transformación
y Resiliencia



Bilbao Bizkaia
Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas
Bilbao Bizkaia

Sinadura